


EUSKADI 2030 GUNEA 

EUSKAL ERAKUNDEENTZAKO GIDA PRAKTIKOA

**Nola ezarri 2030 Agenda eta Garapen
Jasangarriko Helburuei lagundu**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

2020ko uztailea

ARGITARATZAILEA:
EUSKO JAURLARITZA.
LEHENDAKARITZA.

Kanpo Ekintza
Nafarroa 2
01007 GASTEIZ

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA:
Eusko Jaurlaritzako
Kanpo Harremanetarako
Zuzendaritza

EDUKIAK IDATZI DITUENA:
Ainhoa Gea Aranoa¹

¹ Gaur egun, ADOS Sostenibilidad y Clima S.L. sozietateko Garapen Jasangarriko Saileko arduraduna

ESKERRONAK:

EUSKADI 2030 GUNEA talde pilotuan parte hartu eta ekarpenak egin izanagatik; hausnarketak partekatu dira talde horretan eta, hein handi batean, hortik sortu dira Gida honen eduki asko:

Leire Barriuso, Euskal Kostaldeko GEOPARKEAREN kudeatzailea; **Elsa Fuente**, Euskadiko UNICEF Batzordeko zuzendaria; **Arantza Acha**, Euskadiko UNESCO Etxeko zuzendaria; **Arturo Sampedro**, AUREN enpresako Aholkularitza Dibisioko Zuzendari bazkidea; **Helena Orella**, Bolton Food-Grupo Conservas Garavilla taldeko Garapen Jasangarriko arduraduna; **Maika Gorostidi**, TECNALIAko Nazioarteko Harremanen zuzendaria; **Ana López Fernández de Arcaya**, TECNALIAko Kalitate-sistemen, Ingurumenaren eta I+G+b atalaren kudeaketaren arduraduna; **Arantza Madariaga**, ELIRA fundazioko zuzendaria; **Olga Martín**, ACLIMA Klusterreko Zuzendari Nagusia; **Rakel Reyes**, ACLIMA fundazioko komunikazio-arduraduna; **Estibaliz Sáez de Cámara Oleaga**, Jasangarritasuneko zuzendaria. EHU-Berrikuntza, Gizarte-konpromiso eta Kultura Ekintzako errektoreordetza; **M^a Mar Alonso**, IHOBE sozietateko Ekintza Klimatikoko Sailaren koordinatzailea; **Leire Elduayen**, IHOBEko Kalitateko arduraduna; **Josean Quijera**, INGURUGELA sarearen Gipuzkoako zuzendaria; **Eduarne Ugarte**, INGURUGELA sareko aholkularia; **Joseba Martínez**, INGURUGELA sarearen Bizkaiko zuzendaria; **Nagore Larrea**, TUBACEX enpresako Komunikazio-arduraduna; **Pedro Beitia**, EDE Fundazioko koordinatzailea; **Jose Tesán Alonso**, Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarien elkargoko dekanoa; **Verónica Barona**, Ekonomisten Euskal Elkargoa; **Iker Atxa**, Ekonomisten Euskal Elkargoa; **Olatz Legarza**, BASQUETEAM fundazioko zuzendaria; **Marijose Barriola**, TKNIKAko Biozientzien eta Jasangarritasunaren Saileko zuzendaria; **Jon Kepa Izaguirre**, A&B BIOTEKNOLOGIAKO LABORATEGIETAKO Kalitateko eta I+G+b-ko zuzendaria.

AURKIBIDEA



ORRIALDEA

05

1. Gidaren aurkezpena

10

2. Zer ekarpen egiten die 2030 Agendak euskal erakundeei?

14

3. Nola lagun dezakete euskal erakundeek garapen jasangarriko helburuak lortzen?

23

4. Euskal erakundeetarako Erreferentziazko Helmugak

69

5. Nola ekin 2030 Agenda ezartzeari

72

5.1. 1. FASEA. Erakundeak 2030 Agendan duen eginkizuna aztertzea

74

5.2. 2. FASEA. Erakundearen jarduera gjhekin lerrokatzea

78

5.3. 3. FASEA. 2030 Agenda erakundearen ardatz nagusi gisa txertatzea

81

6. Nola egin aurrera, behin 2030 Agenda ezarri ondoren

85

Eranskina.

Erakundearen Erreferentziazko Helburuak identifikatzen laguntzeko taula

1.

Gidaren
aurkezpena



Testuingurua

GARAPEN JASANGARRIRAKO 2030 AGENDA onartu zuen 2015ean; Garapen Jasangarriko 17 Helburu (GJH) zehazten ditu Agenda horrek, eta 193 herrialdek berretsi zuten aho batez.

2016ko urtarrilean sartu ziren indarrean GJH eta, lehen aldiz, hiru alderdiei modu bateratu eta banaezinean ekiteko agertokia planteatzen dute: gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-garapenari, hain zuzen ere.

Gainera, Helburuak formulatu diren moduan, herrialde garatuei zein garapen bidean dauden herrialdeei aplikatu dakieke, eta herrialde, eskualde eta udalerriek testuinguru bakoitzera egokituta aplikatu dezaten espero da.

Lurralde bakoitzak bere inguruabarrak kontuan hartuta egin behar du bidea. Horixe da 2030 Agenda honen ezaugarri bereizgarrietako bat, lurralde-sustapenarekiko konpromisoa eta toki mailara egokitzeko duen aukera, Nazio Batuen Erakundeak eta Europako Batzordeak aitortzen duten bezala. Lurraldeok gizartetik hurbil gaude eta zehaztasunez eskatzen ditugu gizartearen eskariak, baita dauden beharren arabera egokienak diren erantzunak bermatzeko gaitasunak eta baliabideak ere.



Agenda Euskadi Basque Country 2030

Euskadin, Euskadi Basque Country 2030 Agenda onartu zuen 2018an Eusko Jaurlaritzak Gobernu Kontseiluan, 2016-2020 aldirako ikuspegiarekin. Eusko Jaurlaritzako Lehendakarietzako Kanpo Ekintza Sailak lanean dihardu harrezkero, ez Jaurlaritzaren eta Jaurlaritzako Sailen mailan bakarrik, baizik eta baita Aldundiekin, Eudelekin eta Udalerrri Jasangarrien Udalsarea 2030 Euskal Sarearekin lankidetzan ere.

Baina GJH ez dira herri administrazioei soilik aplikatzekoak, baizik eta lehen aldiz era guztietako erakunde eta elkarteei eskatzen zaie helburuok ezartzea, betiere haien aukerak eta jarduera garatzen duten testuingurura egokitzeko gaitasuna kontuan hartuta. 2030 Agendaren egiturak bide ematen du Helburuak maila ezberdinetan eta esparru ezberdinetatik lantzeko eta partekatzeko; eta hor sartzen dira era guztietako erakundeak, elkarteak, erakunde publikoak, enpresa pribatuak, hirugarren sektoreko erakundeak, elkargo profesionalak, etab.

2030 Agenda Euskadiko gizarte- eta ekonomia-sarean dauden sektore guztietan sustatzeko helburuz, **EUSKADI 2030 GUNEA** deritzon talde pilotu baten sorrera bultzatu zuen Eusko Jaurlaritzak 2019an; sektore oso ezberdinetako **17 erakundek** osatzen dute talde hori: hezkuntza, industria-sektorea, elkargo profesionalak, erakunde publikoak, hirugarren sektore sozialeko erakundeak eta zentro teknologikoak, besteak beste. Guzti horien artean, esparru ekonomikoa, soziala eta ingurumenaren esparrua hartzen dituzte.




GJH Euskadiko ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-testuingurura ekartzeko modua ezartzea izan da talde pilotu honek landu duen lehenengo zereginetako bat, sektore guztien ikuspuntua kontuan hartuta eta haien jakintza eta esperientzia jarrita, Gida honen bitartez, **edozein euskal erakundetatik** 2030 Agendari ekiteko orientazioa eta tresnak eskaintzeko.





Gida honen helburua da euskal erakundeei 2030 Agenda ezartzeko zereginen laguntzea

Nori zuzenduta dago?



Gida hau Euskadiko edozein erakunderi zuzenduta dago, publikoa zein pribatua izan, txikia edo handia izan, eta edozein sektoretakoa dela ere.

2030 Agendara egin duen hurbilketa-maila da, batez ere, Gida honen xede-taldea definitzen duena. Euskal erakunde gehienek ez dute hasi oraindik 2030 Agendaranzko bidea, eta oso ondo etorriko litzaieke bide hori egiten hasteko orientazioak eskainiko lizkiekeen gida bat izatea.

Hain zuzen ere, erakunde horiei zuzenduta dago Gida hau. Nolanahi ere, ez da Gida honen asmoa erreferentziazko gida bakarra izatea, erakunde eta sare ugari argitaratu baitituzte gidak, prozesuari nola ekin azaltzeko, bai eta sektorekako gidak ere.

Bi irakurketa-maila eskaintzen ditu, gainera, Gida honek. Lehenengo maila batean, 2030 Agendara hurbiltzeko eta GJHei buruzko lehenengo ezagutza bat izateko balio dezake. Behin 2030 Agendari ekiteko erabakia hartu ondoren, prozesua aurrera eramateko tresna lagungarria izan daiteke.

Zer eskaintzen du?

EUSKADI 2030 GUNEA talde pilotuak kontrastatu eta landu dituen eta Gidaren elementu bereizgarritzat jo daitezkeen hainbat elementutan oinarritzen da Gida:



2. KAPITULUA

> 2030 AGENDARI EKITEKO ZORTZI ARGUDIO

Gida hau irakurtzen ari denak honezkero aurkituko zituen seguruenik 2030 Agenda bere erakundean txertatzeko arrazoiak edo interesa. Baina balio diezaiokeite neurri batean edo bestean bide hori dagoeneko hasita duten beste erakunde batzuen esperientziak eta iritziek, erakundeko beste pertsona batzuk motibatuzko edo sustatzeko. EUSKADI 2030 GUNEA talde pilotua osatu duten 17 erakundeen artean formulatu dituzte Gida honetan proposatzen diren zortzi argudioak.



3. eta 4. KAPITULUAK

> ERREFERENTZIAZKO HELMUGAK


Garapen Jasangarriko 17 Helburuak 169 Helmugatan zehazten dira. Ez daude erakunde guztiak 17 Helburuak eta 169 Helmugak lortzen laguntzera deituta. Euskal erakundeetan zentzua duten 84 Helmuga hautatzen dira Gida honetan; Helmuga horiek, gainera, euskal testuingurura egokituta berridatzi dira. Helmuga kopurua murriztuta eta hautatutakoak egokituta, erakunde bakoitzak erreferentziazko Helmugak identifikatzeko prozesua erraztu nahi izan da. Hirugarren kapituluak, 84 Helmuga horien lehenengo ikuspegi bat eskaintzen du; laugarren kapituluak, bestalde, sakonago aztertzen ditu, eta prozesuari ekiterakoan, lanerako tresna gisa balio dezake.



5. eta 6. KAPITULUAK

> NOLA EGIN PROZESUARI

Gida honek hainbat gomendio eta urrats proposatzen ditu, erakunde bakoitzak malgutasunez ekin diezaion prozesuari, barne-mekanismoen eta -planen arabera, betiere funtsezkotzat joz erakundea osatzen dutenen lidergoa eta parte-hartzea. Amaieran, gainera, behin erakundean 2030 Agenda ezarri ondoren, Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko zenbait ideia eskaintzen du Gidak.



4., 5. eta 6. KAPITULUAK

> BENETAKO KASUAK

EUSKADI 2030 GUNEA taldean parte hartuta, Gida hau egiten lagundu duten erakundeen benetako kasuan aurkezten dira Gida osoan. Benetako kasuak aurkeztearen helburua da hurbileko adibideak edota antzerako erakundeenak ezagutzera ematea.

2.

Zer ekarpen
egiten die 2030
Agendak euskal
erakundeei?



Garapen Jasangarriko Helburuekin konprometitzea, edo ez, erabakitzerako orduan, galdera hau planteatu dezake edozein erakundek:

Zer ekarpen egiten dio 2030 Agendak nire erakundeari?

Jarraian, galdera horren zortzi erantzun aurkezten dizkizuegu, **EUSKADI 2030 GUNEA** lan-taldearen saio batean sortu zirenak eta, hainbat esparrutatik eta une ezberdinetan, dagoeneko hausnarketa-fase honetatik igaro direnak:

Hizkera bateratua, erreferentziazko esparru komun bat eta kidesasun sentimendua sustatzen ditu



Maila eta erakunde mota ezberdinetatik aplika daiteke 2030 Agenda, eta haren elementu bereizgarri nagusienetakoa da administrazioei, enpresei, Gobernuz Kanpoko Erakundeei, elkarteei eta bestelakoei haien artean eta gizartearekin konektatzeko **hizkera komun** bat erabiltzeko aukera ematen diela. Izaera eta irismen honetako ekimen batek **era guztietako erakundeetara iristea** lortu nahi du lehen aldiz, eta ez herrialde, eskualde eta udalerrri mailara soilik.

Hizkera komun bat erabiltzeak, aurrerapenak antzerako moduan neurtzeko aukerak, Helburu zabalagoekin lerrokatutako konpromisoak hartzeak, areagotu egiten du partekatutako beharrezko Helburu bateratu batzuekiko **kidesasun edo partaidetasun sentimendua**, eta horrek are gehiago bultzatzen du erakunde ezberdinen arteko **harreman modu berri** bat, aliantzak eta lankidetzak egitea sustatuz.

Aukera berriak identifikatzea, aurea hartzea eta erakundearekin lerrokatutako gorabidean dauden esparruetan aurrera egitea ahalbidetzen du



2030 Agendak, erakunde-mailan ekiten zaionean, erreferentziatzat zein Helmugek balio dezaketen identifikatzea ahalbidetzen du, erakundearen izaera, jarduera-esparrua, tamaina eta beste hainbat alderdi kontuan hartuta. Prozesu horrek, gainera, aukera ematen du orain arte identifikatu ez diren eta erakunde askorentzako **aukera berriak** izan daitezkeen erronka edo Helmuga berriak identifikatzeko. Beraz, merkatuaren eta gizartearen eskari berriei **aurea hartzeko** eta erantzuteko aukera ematen du. Azken batean, erronka berriak planteatzeko abagune ona da, konfort-zonatik aldenduz eta erakundeetan **berrikuntza** sustatuz.

Garapen jasangarrirako esparru berritua eskaintzen du, trinkoagoa, egonkorragoa eta koherenteagoa



2030 Agenda da, seguruenik, garapen jasangarria lortzeko beharrezko hiru esparruak arrakasta handienaz bateratzea lortu duen ekimena: garapen ekonomikoa eta soziala, eta ingurumenaren hobekuntza, hain zuzen ere. 2030 Agenda baino lehen, ekimen askok lortu du garapen jasangarria agenda politikoetan eta enpresa-estrategietan txertatzea, baina horietako askotan, airean geratu da **garapen jasangarriaren hiru esparru horiek modu eraginkorrean integratzeko** erronka; horrela, bada, behin betikoz esparruok integratzeko erreferentziatzeko esparru bihurtu da 2030 Agenda. 2030 Agendak duen denbora-irismenak, gainera, **esparru egonkor** bat eskaintzen du, erabakiak hartzen laguntzen duen **denbora-ibilbide batekin**.

Erakundearen posizionamendua hobetzen du



Erakunde askorentzat, gainera, beren jardun-eremuan **prestigio eta posizionamendu** argia emango dien **elementu bereizgarria** ere izan daiteke, zalantzarik gabe, 2030 Agenda, era horretan, eta enpresen kasuan, haien **lehiakortasuna** hobetuz.

Estrategia birplanteatzeko eta aldaketa sustatzeko aukera eskaintzen du



2030 Agendaren esparruak eta egiturak aukera ematen die erakundeei beraien plangintza-estrategiak edo gizarte-erantzukizunari dagozkion estrategiak Garapen Jasangarriko Helburuei jarraiki berrantolatzeko eta, ondorioz, baita beraien prozesuak ere. Horrek gizartearekin zein langileekin lan egiteko beste modu bat ekar dezake. Erakundearen alderdiak berrasmatea edo berregituratzea **aldaketarako palanka** izan daiteke, pertsona guztiak kontuan hartzen direla eta **inor atzean uzten ez dela** ziurtatuko duena.

Kontuak ematearekiko eta gardentasunarekiko konpromisoa bultzatzen du



2030 Agenda babesten duen ereduak, gainera, **gardentasunaren, kontuak ematearen** eta GJHei egiten zaion ekarpenaren **jarraipenaren** aldeko apustua egiten du, adierazleak kalkulatu eta memoriak prestatuz; kontu hori dagoeneko ezinbestekoa da edozein erakunderentzako, publikoa zein pribatua izan. Eredu horrek **erakundeek GJHei egiten dieten ekarpena ebaluatzea eta neurtzea** ahalbidetzen du; era horretan, abiapuntu ezberdinekin, baina guztiak norabide berean joatea lortzen da.

Interes-taldeen eta gizartearekiko hartu-emanetarako modu berria ezartzen du



2030 Agendak duen prestigioak **interes-taldeen beste modu bateko hartu-emana** izatea ahalbidetzen die Agendaren aldeko apustu irmoa egiten duten erakundeei. **Gizartearen aurrean eragin handia duen tresna** da, gainera, giza eskubideekin zuzeneko edo zeharkako harremana duten erakundeen eginkizuna indartzen duena.

Aliantzak ezartzeko aukera errazten du



2030 Agendak aukera ugari eskaintzen du, eta maila ezberdinetan hitzarmenak, **aliantzak eta lankidetzak** ezartzeko aukerak biderkatzen ditu. 2030 Agendaren ezaugarri bereizgarrietako bat eta Garapen Jasangarriko 17 Helburuen protagonista nagusia izanik, GJH gehienetan daude presente aliantzetarako aukerak, elkarrekin lan egitera gonbidatzen duen eta jarduteko modu hori sustatzen duen elementu bat izanik, etengabe agertzen dena.

3.

**Nola lagun
dezakete euskal
erakundeek
Garapen
Jasangarriko
Helburuak
lortzen?**



2030 Agendak Garapen Jasangarriko 17 Helburu (GJH) planteatzen ditu, 169 Helmugatan zehazten direnak.

Helburu mota ezberdinak daude. Batzuk oso sektorialak dira, hala nola 7. Helburua. Energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea; beste batzuk oso lotuta daude beste Helburu batzuekin, hala nola 5. Helburua. Genero-berdintasuna. Badaude, bestalde, konpromisoekin, prozesuekin edo aliantzekin lotutako gaiari heltzen dietenak ere, besteak beste, 16. Helburua. Bakea, Justizia eta erakunde sendoak eta 17. Helburua. Helburuak lortzeko aliantzak.

Gauza bera gertatzen da Helmugekin ere; Helburu ezberdinekin harremana duten Helmugak daude, 1.5. Helmuga esaterako, 1. Helburuarekin –Pobrezia desagertzea– eta 13. Helburuarekin –Klimaren aldeko ekintza–, aipatutako Helmugak zera planteatzen baitu: pobrezia eta zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen klimarekin lotutako muturreko fenomenoaren aurrean izan dezaketen kontaktua murriztea.

Horregatik, Garapen Jasangarriko Helburuei ekin nahi dien edozein erakunderi ematen zaion lehenengo aholkua izaten da ez dadila konformatu GJHei egiten dien ekarpena edo maila horretan duen eginkizuna aztertzearekin. Gutxieneko ariketa zorrotz bat egiteko, Helmugak aztertu behar dira, eta erakundeak Helmugei dagokienez duen jarduera mapeatu behar da, ez bakarrik GJHei dagokienez; bestela, sinplifikatu egin daiteke Nazio Batuen Erakundeak planteatzen duen asmo handiko erronka.

Konplexua denez Nazio Batuen Erakundearen 169 Helmugak aztertzea, horiek gure gizartearen testuingurura ekartzea eta erakunde bakoitzaren errealitatera egokitzea, Gida honek lehenengo iragazki bat eskaintzen du, **euskal erakundeentzako Erreferentziazko Helmuga** gisa identifikatu diren **84 Helmugetara** muga dezaten azterketa hori euskal erakundeek.



GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

2030 AGENDA UNIBERTSALAREN HELMUGAK EAEREN TESTUINGURUAREN LURRALDE-MAILARA EKARTZEA

TOKI-ADMINISTRAZIOA-UDALERRIAK



udalsarea 2030
udalerrri jasangarrien euskal sarea
red vasca de municipios sostenibles



UDALAZ GAINDIKO ADMINISTRAZIOA: EUSKO JAURLARITZA, ALDUNDIAK ETA HIRIBURUAK



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



Agenda Euskadi Basque Country 2030

Maila Anitzeko Agenda

Helmuğak administrazioaren hiru mailataraz egokitzea: autonomikoa, forala eta euskal hiriburuak

EUSKAL ERAKUNDEAK



EUSKADI 2030 GUNEA




+



Bi taldetan sailkatu dira
ERREFERENTZIAZKO 84 HELMUGA horiek:

28 HELMUGA KOMUN; uste da euskal erakunde guztiek hartu beharko lituzketela kontuan.

Eta **56 HELMUGA SEKTORIAL;** erakunde bakoitzaren sektorearen, jardueraren eta tamainaren arabera.



1. Irudia:

2030 AGENDA UNIBERTSALAREN Helmuġak euskal erakundeen testuingurura ekartzea eta egokitzea

28

HELMUGA KOMUN

GIZARTE-ARLOKO 12
HELMUGA

INGURUMENARI
DAGOZKION 7
HELMUGA

9 HELMUGA
EKONOMIKO



Erakunde guztiak daude pertsonaz osatuta, eta Euskadiko erakunde askok herritarrei zuzentzen dizkiete beraien zerbitzuak edo produktuak. Horregatik, Nazio Batuen Erakundeak planteatutako gizarte-arloko 12 Helmuga horiek erakundeak bere egiteak, euskal erakundeak gehiago hurbiltzen ditu gizartera, eta pertsona guztien gizarteratzea errazten du, inor atzean ez uzteko” helburuz.

Jarraian, euskal erakunde guztiek txerta ditzaketen **28 Helmuga Komunak** aurkeztuko ditugu: garapen jasangarriaren berezko hiru esparruetan taldekatuta: gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-arloetan, hain zuzen ere. Helmuga horiek berridatzita daude, Euskadiren testuingurura egokitzeko, eta esparru bakoitzerako laburpena jasotzen dute.



GIZARTE-ARLOKO 12 HELMUGA

- **1.2.** Pobrezia egoeran dagoen pertsona kopurua murriztea.
- **2.2.** Malnutrizio modu guztiak desagerraraztea, obesitateari ere arreta eskainiz.
- **3.4.** Osasun mentala eta ongizatea sustatzea.
- **3.6.** Erdira murriztea trafiko-istripuengatik hildakoen eta lesionen kopurua.
- **4.a.** Ikaskuntza-ingurune seguruak, indarkeriarik gabeak, inklusiboak eta eraginkorrak eraikitzea eta egokitzea, ikaskuntza-ingurunean bizitza osoan zehar kontuan hartuta.
- **5.1.** Emakume eta neskatilen aurkako diskriminazio modu guztiak desagerraraztea.
- **5.2.** Emakumeen eta neskatilen aurkako edozein indarkeria modu desagerraraztea.
- **5.4.** Etxean eta familian erantzunkidetasuna sustatzea.
- **5.5.** Emakumeen erabateko parte-hartze eraginkorra eta aukera-berdintasuna ziurtatzea.
- **10.2.** Pertsona guztien gizarteratzea, inklusio ekonomiko eta politikoa bultzatzea eta sustatzea.
- **10.3.** Pertsona guztiei aukera-berdintasuna bermatzea.
- **10.7.** Pertsonen migrazio eta mugikortasun antolatua, segurua, erregularra eta arduratsua bermatzea.



Euskadin, aurrerapen nabarmena izan du erakundeek ingurumenarekiko duten konpromisoak eta, zehazki, edozein jarduera-motaren ondoriozko ingurumenarekiko inpaktuen prebentzioak eta, bereziki, industria jardueraren ondoriozkoenak. Hala ere, oraindik badaude aurre egin behar zaien erronkak, eta euskal erakunde guztiak eurengana ditzakete datozen urteetarako ingurumenaren arloko erronkei dagozkien 7 Helmuga hauek, hala nola klima-aldaketaren aurkako borroka, mugikortasun jasangarria eta itsasoaren kutsaduraren prebentzioa.



INGURUMENARI DAGOZKION 7 HELMUGA

- **11.2.** Garraiatzeko modu jasangarrien erabilera sustatzea.
- **11.6.** Hirien eta herrien ingurumenarekiko inpaktu negatiboa murriztea, arreta berezia eskainiz airearen kalitateari eta hondakinen kudeaketari.
- **12.2.** Natura-baliabideak modu jasangarrian kudeatzea eta modu eraginkorrean erabiltzea lortzea.
- **12.6.** Erakundeetan jardunbide jasangarriak erabiltzea, eta jasangarritasunaren inguruko informazioaren berri ematea.
- **13.2.** Klima-aldaketarekin zerikusia duten neurriak hartzea (arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko neurriak).
- **14.1.** Itsasoaren kutsadura prebenitzea eta murriztea, batez ere lurreko jarduerak sortutakoa.
- **15.9.** Ekosistemen eta biodibertsitatearen eta horien zerbitzuen balioak plangintzan txertatzea.



Erakunde guztiak eurengana ditzakete Nazio Batuen Erakundearen 9 Helmuga hauek, lan duinean eta ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako hazkunde ekonomikoan, gardentasunean, garapen jasangarriko adierazleei buruzko informazioa argitara ematean, eta erabakiak modu parte-hartzailean oinarrituta hartzen dituzten gobernu-ereduetan oinarritutakoa. Halaber, GJHeikin konprometitutako erakundeek biderkatu egin ditzakete euren efektuak, aliantzak ezarrita, beren inguruko beste erakunde batzuen motorra izanda, eta garapenerako nazioarteko lankidetzarekin konprometituta.



9 HELMUGA EKONOMIKO

- **8.3.** Lanpostu txukunen sorkuntza, ekintzailtza, sormena eta berrikuntza sustatzea.
- **8.4.** Baliabideen ekoizpen eta kontsumo eraginkorra hobetzea, eta hazkunde ekonomikoa ingurumenaren degradaziotik bereiztea.
- **16.5.** Ustelkeria eta eroskeria modu guztiak murriztea.
- **16.6.** Kontuen berri emango duten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea, maila guztietan.
- **16.7.** Maila guztietan erabaki inklusibo, parte-hartzaile eta ordezkagarriak hartzen direla bermatzea.
- **17.2.** %0,7 garapen bidean dauden herrialdeak garatzeko laguntza ofizialera bideratzea.
- **17.16.** Askotariko interesdunen arteko aliantzak sortzea, ezagupenak mobilizatu eta elkartrukatu, eta gaitasuna, teknologia eta finantza-baliabideak sortuko dituztenak, Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko helburuz.
- **17.17.** Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilaren arloan aliantzak eratzea.
- **17.19.** Garapen jasangarriaren arloan egindako aurrerapenak neurtzeko aukera emango duten adierazleak prestatzea.

56 HELMUGA SEKTORIALAK

Jarraian, **56 Helmuga Sektorialak** aurkeztuko ditugu, hau da, erakunde bakoitzaren sektorearen, jardueraren eta tamainaren arabera. Garapen Jasangarriko Helburuaren arabera taldekatuta daude Helmugak, eta Euskadiko testuingurura egokitzeko idatzita:



56 HELMUGA SEKTORIALAK

- **1.1.** Muturreko pobrezia desagerraraztea.
- **1.3.** Pobrezia eta zaugarritasun egoeran dauden pertsonentzako babes sozialeko estaldura handia lortzea.
- **1.4.** Pobrezia egoeran dauden pertsonen oinarrizko zerbitzuak erabiltzeko eskubide berberak izan ditzaten bermatzea.
- **1.5.** Pobrezia eta zaugarritasun egoeran dauden pertsonen klimarekin lotutako muturreko fenomenoaren aurrean izan dezaketen esposizioa murriztea.
- **2.1.** Pobrezia eta zaugarritasun egoeran dauden pertsonen, batez ere urtebetez azpiko haurtxoek, urte osoan elikadura osasungarria, elikagarria eta nahikoa izan dezaten ziurtatzea.
- **2.3.** Elikagaien maila txikiko ekoizleen nekazaritzako ekoizpena bikoiztea, batez ere familia- nekazariena, abeltzainena eta arrantzaleena.
- **2.4.** Nekazaritzaren sektoreak klima-aldaketara egokitzeko duen gaitasuna indartzea.
- **2.5.** Hazien, landatutako landareen eta abeltegiko animalien dibertsitate genetikoari eustea, hazi- eta landare-bankuak ondo kudeatu eta dibertsifikatuta.
- **3.5.** Substantzia mendekotasun-sortzaileen gehiegizko erabilera prebenitzea.
- **3.9.** Airearen, uraren eta lurzoruaren kutsadurak osasunean duten eragin kaltegarria murriztea.
- **3.b.** Txertoak eta botikak garatzeko eta ikertzeko jarduerak bultzatzea.

- **4.1.** Haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntza amai ditzaten ziurtatzea.
- **4.3.** Kalitatezko prestakuntza teknikoa, lanbide heziketa eta goi-mailakoa –unibertsitatekoa barne– egiteko aukera–berdintasuna ziurtatzea.
- **4.4.** Enplegua eskuratzeko, lan duina izateko eta ekintzailetzarako beharrezko gaitasunak dituzten gazteen eta helduen kopurua nabarmen handitzea.
- **4.5.** Hezkuntzan generoen arteko ezberdintasunak desagerraraztea, eta ezgaitasuna duten pertsonen eta zaugarritasun egoeran dauden haurrek irakaskuntzarako eta lanbide heziketarako aukera berdina izan ditzaten ziurtatzea.
- **4.7.** Ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezko ezagupen teoriko eta praktikoak euren gaitasuna ditzaten ziurtatzea.
- **6.3.** Uraren kalitatea hobetzea, kutsadura murriztuz.
- **6.4.** Sektore guztietan, ur-baliabideen erabilera eraginkorra areagotzea.
- **6.6.** Urarekin lotutako ekosistemak babestea eta berroneratzea.
- **7.1.** Energia-zerbitzu eskuragarri, fidagarri eta modernoak eskuratzeko aukera bermatzea.
- **7.2.** Energia berriztagarrien proportzioa handitzea.
- **7.3.** Energia-eraginkortasunaren hobekuntza–tasa bikoiztea.
- **8.2.** Produktibitate ekonomikoa hobetzea, dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren bitartez.
- **8.5.** Pertsona guztientzako enplegu duina eta balio bereko lanagatiko ordainsari–berdintasuna lortzea.
- **8.6.** Enplegurik gabe eta ikasten ari ez diren gazteen proportzioa murriztea.
- **8.8.** Lan-eskubideak babestea, eta lan-ingurune seguru eta arriskurik gabek sustatzea.
- **8.9.** Lanpostuak sortu eta bertako kultura eta produktuak sustatuko dituen turismo jasangarri bat sustatzea.
- **9.1.** Azpiegitura fidagarri, jasangarri, erresiliente eta kalitatezkoak garatzea.
- **9.4.** Industriak berregituratzea, jasangarriak izan daitezen, baliabideak eraginkortasun handiagoz erabilia eta teknologia garbien erabilera sustatuta.
- **9.5.** Berrikuntzaren eta ikerkuntzaren bitartez, industria-sektoreen gaitasun teknologikoa hobetzea.
- **10.4.** Berdintasun–maila handiagoa lortzeko politika fiskalak, soldata–politikak eta babes sozialekoak ezartzea.
- **11.1.** Pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egoki, seguru eta eskuragarriak izan ditzaten ziurtatzea.
- **11.3.** Urbanizazio inklusiboa, parte–hartzaila eta jasangarria areagotzea.
- **11.4.** Kultura– eta natura–ondarea babestea eta zaintzea.
- **11.5.** Hondamendiek eragindako heriotza kopurua murriztea.
- **11.7.** Herritar guztiek, batez ere emakumeek, haurrek, adineko pertsonen eta ezgaitasuna dutenek, berdegune eta espazio publiko seguru, inklusibo eta irisgarrietara iristeko aukera izan dezaten ziurtatzea.
- **11.b.** Gizarteratzea, baliabideen erabilera eraginkorra, klima–aldaketaren eraginak arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko modua eta hondamendien aurreko erresilientzia sustatzeko politikak eta planak egiten eta ezartzen dituzten hiri eta herrien kopurua handitzea.

- **12.3.** Elikagaien xahuketa erdira murriztea.
- **12.4.** Atmosferara egiten diren emisioak eta uretara eta lurzorura egiten diren isurketak murriztea.
- **12.5.** Hondakinen sorkuntza nabarmen murriztea, prebentzioaren, murrizpenaren, birziklapenaren eta berrerabiltzearen bitartez.
- **12.7.** Erosketa publiko jasangarriko jardunbideak ezartzea.
- **12.8.** Herritarrei naturarekin harmonian egoteko bizitza-estiloak sustatzeko informazioa ematea.
- **12.a.** Garapen bidean dauden herrialdeei kontsumo- eta ekoizpen-modalitate jasangarriagoetarantz aurrera egiteko duten gaitasun zientifikoa eta teknologikoa indartzen laguntzea.
- **12.b.** Garapen jasangarriaren gaineko eraginak zaintzeko tresnak egitea eta aplikatzea, lanpostuak sortu eta bertako kultura eta produktuak sustatuko dituen turismo jasangarri bat lortzeko helburuz.
- **13.1.** Herrialde guztietan, klimarekin eta hondamendi naturalekin zerikusia duten arriskueta egokitzeko gaitasuna eta erresilientzia indartzea.
- **13.3.** Klima-aldaketa arintzeari eta aldaketa horretara egokitzeari, klima-aldaketaren ondorioak murrizteari eta alerta goiztiarrari dagokionez, gizakien eta erakundeek heziketa, sentsibilizazioa eta gaitasuna hobetzea.
- **14.2.** Itsasoko eta itsasertzeko ekosistemak modu jasangarrian kudeatzea eta babestea, efektu kaltegarri garrantzitsuak saihesteko, eta horiek berreskuratzeko neurriak hartzea, ozeanoen osasuna eta produktibitatea lehengoratzeko helburuz.
- **14.4.** Arrantza-ustiakuntza eraginkortasunez arautzea, eta gehiegizko arrantzarekin, legez kanpoko arrantzarekin, deklaratu eta arautu gabekoarekin eta arrantza-jardunbide suntsitzaileekin amaitzea, eta oinarri zientifikodun kudeaketa-planak aplikatzea, ahalik eta lasterren arrain-populazioak lehengoratzeko helburuz, haien ezaugarri biologikoen arabera ahalik eta etekinik jasangarriena lortzeko gutxieneko mailak lortuz.
- **14.a.** Ozeanoekin eta itsasoekin lotutako ezagupen zientifikoak eta ikerkuntza areagotzea.
- **15.1.** Lurreko eta barnealdeko ur gezen ekosistemak kontserbatzea, berroneratzea eta modu jasangarrian erabiltzea, batez ere basoak, hezeguneak, mendiak eta eremu elkorrak.
- **15.3.** Lur eta lurzoru kutsatuak berroneratzea.
- **15.4.** Mendi-ekosistemak kontserbatzea, haien dibertsitate biologikoa barne, garapen jasangarriko funtsezko onurak ematen duten gaitasuna hobetzeko helburuz.
- **15.5.** Natura-habitaten degradazioa murriztea, biodibertsitate-galera geldiaraztea, eta mehatxupean dauden espezieak babestea eta haien desagertzea saihestea.
- **15.8.** Espezie exotiko inbaditzaileak sar daitezkeen prebenitza, eta nabarmen murriztea espezie horiek lurreko eta uretako ekosistemetan dituzten eragin kaltegarriak, eta lehentasunezko espezieak kontrolatzea edo desagerraraztea.
- **16.2.** Haurren aurkako indarkeria modu guztiak desagerraraztea.
- **17.9.** Garapen bidean dauden herrialdeetan gaitasun eraginkorrak eta zehatzak sortzeko jarduerak egiteko nazioarteko laguntza areagotzea.

4.

Euskal erakundeetarako erreferentziazko Helmugak

Jarraian, euskal erakundeetarako erreferentziazko 84 Helmugak aurkezten dira, erakundeek horietako bakoitzean nola lagun dezaketen ideiak emanez. Hala badagokio, Helburu ezberdinetako Helmugen artean dagoen harremana ezartzen da.

Kapitulu honen asmoa da erakunde bakoitzari eragiten dioten Helmugak identifikatzeko zereginean laguntzea, betiere kontuan hartuz eta gomendatuz 28 Helmuga komunak euskal erakundeetan hartu beharreko konpromisoen oinarrizko erreferentzia gisa hartzea. Horregatik, nabarmenduta daude Helmuga komunak.

Gida hau era guztietako erakundeei zuzenduta dagoenez, Helmuga bakoitzerako laguntzeko moduaren ideiak ez dira katalogo zorrotz bat, baizik eta erreferentziazko informazioa emateko helburua dute eta, Helmuga sektorialen kasuan, erakunde bakoitzean zentzuzkoak diren edo ez erabakitzen laguntzeko helburua.



Pobrezia desagerraraztea,
bere modu guztietan eta
mundu osoan

1 HELMUGA KOMUN



1.2

4 HELMUGA SEKTORIAL

1.1 | 1.3 | 1.4 | 1.5

* Beste HELMUGA batzuekiko lotura

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	*
<p>1.1. Muturreko pobrezia desagerraraztea.</p>	<p>Garapen bidean dauden herrialdeetan hornitzaileak eta lantegiak dituzten enpresek Helmuga horretan lagun dezakete, hirugarren sektore sozialeko erakundeekin aliantzak eginez, garapen bidean dauden herrialdeetako presentziarekin lotutako prozedurak eta kode etikoak ezarrita, edo etekinarekin portzentaje bat (% 0,7, esaterako) garapenerako nazioarteko lankidetzara bideratuta.</p>	<p>17.2 HELMUGA</p>
<p>1.2. Pobrezia egoeran dagoen pertsona kopurua murriztea.</p>	<p>Erakundearen barne-mailan: erakunde guztiak daude pertsonaz osatuta. Zuzendaritzak harago jo dezake eta jo behar du, enpresa osatzen duten pertsonen egoera hobeto ezagutzeko.</p> <p>Pertsona horietako batzuk pobrezia egoeran egon litezkeela detektatuz gero, aldaketak egin eta laguntzarako baliabide propioak sor daitezke, kalitatearen hobekuntza ziurtatzeko.</p> <p>Erakundetik kanpo: erakundeak jarduten duen udalerrian edo eskualdean pobreziaaren aurka edozein modutan borrokatzen duten tokiko erakundeekin eta/edo erakunde sozialekin kolabora dezake erakundeak, edo haiekin aliantzak ezarri.</p>	<p>-</p>

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
1.3. Pobrezia eta zaugarritasun egoeran dauden pertsonentzako babes sozialeko estaldura handia lortzea.	Herri administrazioek eta hirugarren sektore sozialeko erakundeek gutxieneko estaldura edo babes sozialeko sistemen estaldura duen biztanle-proporzioa indartzen lagun dezakete.	-
 1.4. Pobrezia egoeran dauden pertsonen oinarrizko zerbitzuak erabiltzeko eskubide berberak izan ditzaten bermatzea.	Herri administrazioek eta hirugarren sektore sozialeko erakundeek Helmuga horretan lagun dezakete, pobrezia egoeran dauden pertsonen laguntzera eta informazioa ematera bideratutako baliabideak indartuz, eta oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko prozesuetan lagunduz.	-
1.5. Pobrezia eta zaugarritasun egoeran dauden pertsonen klimarekin lotutako muturreko fenomenoaren aurrean izan dezaketen esposizioa murriztea.	Aldundiek eta udalek, dituzten gizarte zerbitzuen bitartez, Helmuga horretan lagun dezakete, beste sail batzuekin batera Klima-aldaketara egokitzeko Planak egiten eta kolaboratzen, plan horietan kontuan izan dadin muturreko fenomenoaren aurrean zaugarrienak diren kolektiboak identifikatu beharra.	13.3 HELMUGA



BENETAKO KASUA

1.4 HELMUGA



FUNDAZIOA

EDE Fundazioa ezagupenaren, zuzeneko esku-hartzearen eta gizarte-ekonomiako eta enplegu inklusiboko proiektuen garapenaren bitartez aldaketa iraunkorrak, inklusiboak eta jasangarriak sortzeko lan egiten duten erakunde sozialen multzoa da. Sare horretako kide dira: **EDE Fundazioa, Suspergintza Elkartea, Suspertu S.L. eta Luz Casanova Fundazioa.**

Olakueta Etxea, migratzaileentzako harrera- eta laguntza-zentroa

EDE Fundazioa

Berrizen dagoen zentroa da Olakueta Etxea; aldi baterako hartzen ditu zaugarritasun egoeran dauden migratzaileak, lehenasuna emanez adingabeak ardurapean dituzten emakumeei eta familia ugari. 2018ko irailean jarri zuen martxan zentro hori Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren bitartez, eta ordutik, 18 herrialdeetako 141 lagun hartu ditu zentroak.

Zentroaren helburu nagusia da indarkeria arrazoiengatik eta oinarrizko giza eskubideen urraketengatik, migrazio behartuko testuinguru global batean, Euskadira iritsi diren eta zaugarritasun egoera berezian dauden pertsona horiei aldi baterako ostaturik ematea eta arreta pertsonaleko eta gizarteratzeko prozesua eskaintzea. Baliabide horrekin, gizarte-bazterketako arriskuan dauden migratzaileen ostaturik, elikadura, jantzi, oreka emozional eta beste alderdi batzuei dagozkien oinarrizko beharrak asetzea; babesgabetasun eta ostaturik ez dutenen egoerak murriztea, eta informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzea.

Giza eskubideen oinarrizko printzipioetan oinarritzen

da pertsona horiekin egiten den lana, duintasunari dagokionez pertsona guztien berdintasuna aitortuz eta, laguntasunaren bitartez, haien bizitza-/migrazio-proiektuekin aurrera egitea ahalbidetuko dieten baliabideak eta aukerak eskuratzeko autonomia bultzatuz.

Bereziki nabarmentzen da Gurutze Gorriak, CEAR batzordeak, Harribide Fundazioak, Lagun Artean zentroak, Ellacuria Fundazioak, Caritasek eta Mesedeetako Ahizpa Misiolariek elkarrekin egindako lana eta koordinazio-lana. Berrizko Udalak, hainbat sail eta zinegotzitzaren bitartez, Udal Parte-hartze Kontseiluak, Zabaltzen-Sartu kooperatibak, Oiz-Anboto parrokia-unitateak, Durango-Berrizko Helduentzako Hezkuntzak (EPA), Umerri Eskola Aktiboak, Learreta-Markina eskolak, Berrizko institutuak eta udalerriko boluntarioek osatzen dute proiektuari euskarria ematen dion komunitate-sarea.

Suspergintza Elkarrekin eta Gizarteratzeko Suspertu SL enpresak (EDE Fundazioko kideak biak) koordinatzen eta kudeatzen dute ostatu sozialeko baliabide hau. Suspertuk ostatu sozialeko zerbitzuak kudeatzen ditu, gizarteratzeko hainbat postu sortzea ahalbidetuz; postu horiek gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko ibilbide-aukera bikaina dira, enplegarritasunari dagozkion zailtasun handiak dituzten pertsonentzako, eta horrek areagotu egiten du proiektuaren balio soziala.



Gosearekin amaitzea, elikadura-segurtasuna lortzea, nutrizioa hobetzea eta nekazaritza jasangarria sustatzea

1 HELMUGA KOMUN


2.2

4 HELMUGA SEKTORIAL

2.1 | 2.3 | 2.4 | 2.5

*  Beste HELMUGA batzuekiko lotura

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
<p>2.1. Pobrezia eta zaugarritasun egoeran dauden pertsonak, batez ere urtebetez azpiko haurtxoek, urte osoan elikadura osasungarria, elikagarria eta nahikoa izan dezaten ziurtatzea.</p>	<p>Hezkuntzarekin lotutako erakunde guztiek, gizarte- eta osasun-sektoreko erakundeek edo katerin-hornikuntzako enpresek lagun dezakete Helmuga honetan, hirugarren sektore sozialeko erakundeekin aliantzak/lankidetzak ezarriz, edo beste ekimen batzuk antolatuz, boluntarioritza-programak esaterako.</p>	-
<p>2.2. Malnutrizio modu guztiak desagerraraztea, obesitateari ere arreta eskainiz.</p>	<p>Erakundearen barne-mailan: mediku-azterketetan zein sentsibilizazioko barne-kanpainetan nutrizioarekin zerikusia duten gaiak txertatuz.</p> <p><i>Vendingeko</i> gunerik izanez gero, produktu osasungarriak ere eskainiz eta, jantoki zerbitzua eskaintzen badu, menuak osasunaren ikuspuntutik aztertuz eta, beharrezkoa izanez gero, hobetuz.</p>	-
<p>2.3. Elikagaien maila txikiko ekoizleen nekazaritzako ekoizpena bikoiztea, batez ere familia-nekazariena, abeltzainena eta arrantzaleena.</p>	<p>Elikaduren banaketaren sektoreak, ostalaritzak, eta jantokiak dituzten erakundeek eta erakunde publikoek lagun dezakete Helmuga honetan, hainbat ekimen sustatuz, hala nola 0 km-ko produktuak, tokian tokiko produktu jasangarri osatutako saskiak, kontzientziazio-ekintzak edo hiri-baratzeen promozioa.</p>	-

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
<p>2.4. Nekazaritzaren sektoreak klima-aldaketara egokitzeko duen gaitasuna indartzea.</p>	<p>Klima-aldaketara egokitzearen arloan diharduten erakunde publikoek, ikerkuntza-zentroek eta unibertsitateek lagun dezakete Helmuga honetan, nekazaritza-sektoreari zuzendutako diru-laguntzak eskainiz, eta klima-aldaketak sektorean duen eraginari buruzko azterlanak eta ikerketak eginez, egokitzapenerako neurriak sustatzen laguntzeko.</p>	<p>13.3 HELMUGA</p>
<p>2.5. Hazien, landatutako landareen eta abeltegiko animalien dibertsitate genetikoari eustea, hazi- eta landare-bankuak ondo kudeatu eta dibertsifikatuta.</p>	<p>Erakunde publikoek, ikerkuntza-zentroek, unibertsitateek edo ostalaritzaren sektoreak lagun dezakete Helmuga honetan, dibertsitate genetikoa sustatuko duten ikerketa, azterlan edo politikekin.</p>	<p>-</p>



Bizitza osasungarria bermatzea, eta adin guztietako pertsona guztien ongizatea sustatzea

2 HELMUGA KOMUN

.....

3.4 | 3.6


3 HELMUGA SEKTORIAL

.....

3.5 | 3.9 | 3.b

* Beste HELMUGA batzuekiko lotura

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	*
3.4. Osasun mentala eta ongizatea sustatzea.	<p>Erakundearen barne-mailan: laneko arrisku psikosozialak prebenitzeko neurriak gehituz; jazarpenaren aurkako neurriak jasoz; mediku-azterketetan protokolo gehigarriak ezarrita, baita elikadurarekin eta obesitatearekin lotutakoak ere. Legeak ezarritakoetatik harago doazen kontziliazio-neurriak sustatuz. Ariketa fisikoa, adikzioen prebentzioa edo deskonexio digitalerako neurriak sustatzen dituzten programak bultzatuz.</p> <p>Ikastetxeetan, ikasleen osasun fisikoa eta mentala sustatzen dituzten neurriak ere har daitezke.</p>	8.8 HELMUGA
3.5. Substantzia mendekotasun-sortzaileen gehiegizko erabilera prebenitzea.	<p>Erakunde publikoek, ikastetxeek, osasunaren arloko erakundeek eta erakunde sozialek substantzia mendekotasun-sortzaileen gehiegizko erabilera prebenitzeko neurriak ezar ditzakete, adikzioak detektatzeko protokoloak sortu, eta adikzioak dituzten pertsoneri eta haien ingurukoei lagun diezaiekete, prestakuntzaren, sentsibilizazioaren eta detekzio goiztiar anizkoitzaren bitartez (lehen mailako arreta, ikastetxeak...)</p>	-

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
<p>3.6. Erdira murriztea trafiko-istripuengatiko hildakoen eta lesioen kopurua.</p>	<p>Erakunde guztiek ezar ditzakete trafiko-istripuen kopurua murrizteko neurriak, mugikortasun seguru eta jasangarria sustatuko duten neurrien bitartez.</p> <p>Automobilgintzaren sektoreko enpresek, gama guztietako ibilgailuetan segurtasun-neurriak jartzea hedatuz eta orokortuz.</p> <p>Azpiegituren arduradun diren herri administrazioek, kalitatezko azpiegiturak ziurtatuz, eta gainerako herri administrazioek, garraiobide seguru eta jasangarriak sustatuz, planen eta baliabideen zuzkiduraren bitartez.</p>	-
<p>3.9. Airearen, uraren eta lurzorua kutsadurak osasunean duten eragin kaltegarria murriztea.</p>	<p>Industria-sektoreko enpresek, haien prozesuetan ingurumenari dagozkion hobekuntzak sustatuz, emisioak eta isurketak legeriak exijitzen duena baino harago murriztuz, eta sortutako hondakinak behar bezala prebenitzea eta kudeatzea sustatuz.</p> <p>Garraioaren sektoreak, hobekuntza teknologikoaren bitartez, emisioak murriztuz.</p> <p>Herri administrazioek, prozesuetan eta teknologian emisioak, isurketak eta hondakin-sorkuntza murriztuko duten hobekuntzetarako diru-laguntzen eta zerga-pizgarrien lerroak hobetuz.</p>	<p>11.2 HELMUGA</p> <p>15.3 HELMUGA</p>
<p>3.b. Txertoak eta botikak garatzeko eta ikertzeko jarduerak bultzatzea.</p>	<p>Herri administrazioek, unibertsitateek, osasunaren arloko zentro teknologikoei eta farmazia-sektoreak, ikerkuntza sustatuz eta ikerketen emaitzak hobetzeko aliantzak eta hitzarmenak eginez.</p>	-



Kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta zuzena bermatzea, eta guztientzako etengabeko ikaskuntza-aukerak sustatzea

1 HELMUGA KOMUN

.....

4.a

5 HELMUGA SEKTORIAL

.....

4.1 | 4.3 | 4.4 | 4.5 | 4.7

* Beste HELMUGA batzuekiko lotura

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	*
4.1. Haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntza amai ditzaten ziurtatzea.	Erakunde publikoek Helmuga honetan lagun dezakete, eskola-porrotaren tasa murriztea helburu duten programetara baliabide gehiago eta hobeak bideratuta, ikasle guztiek bigarren hezkuntza amai dezaten saiatuz. Hezkuntza-sektoreko erakunde pribatuek eta hitzartuek Helmuga honetan lagun dezakete, eskola-porrota murrizteko eta ikasle guztiek gutxienez bigarren hezkuntza amaitzea ziurtatzeko programak eta estrategiak ezarriz eta hobetuz.	-
4.3. Kalitatezko prestakuntza teknikoa, lanbide heziketa eta goi-mailakoa –unibertsitatekoa barne– egiteko aukera-berdintasuna ziurtatzea.	Hezkuntzan eskumenak dituzten herri administrazioek eta ikastetxeek lagun dezakete Helmuga honetan, planak diseinatuz eta beka-sistema egungo testuinguru sozioekonomikora egokitzea ziurtatuz.	8.6 HELMUGA
4.4. Enplegua eskuratzeko, lan duina izateko eta ekintzailetzarako beharrezko gaitasunak dituzten gazteen eta helduen kopurua nabarmen handitzea.	Hezkuntzaren arloko erakunde publiko zein pribatuek eta garapen-agentziek, enplegu-sistema publikoak, enpresa-elkarteek edo, are, enpresek, eta hirugarren sektore sozialeko erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, hezkuntza-arloaren eta lan-munduaren arteko zubiak hobetuko dituzten aliantzak eta lankidetzak sustatuz, mentoringeko programak eta enpresetan praktikak egiteko programak martxan jarritz, etab.	4.1 HELMUGA

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
<p>4.5. Hezkuntzan generoen arteko ezberdintasunak desagerraraztea, eta ezgaitasuna duten pertsonen eta zaurgarritasun egoeran dauden hurrek irakaskuntzarako eta lanbide heziketarako aukera berdinak izan ditzaten ziurtatzea.</p>	<p>Hezkuntzaren arloan eskumenak dituen herri administrazioak zein ikastetxeek eta hirugarren sektore sozialeko erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, pertsona guztiek aukera-berdintasuna izatea ziurtatzeko irizpideak egokitzeko planak diseinatuz eta berdintasun hori ziurtatuz, gizarte-testuinguruarekin eta ezgaitasuna duten edo zaurgarritasun egoeran dauden pertsona jakin batzuen beharrekin bat etorriz.</p>	<p>4.3 HELMUGA</p>
<p> 4.7. Ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezko ezagupen teoriko eta praktikoak eurengana ditzaten ziurtatzea.</p>	<p>Ikastetxeek lagun dezakete Helmuga honetan, Euskadiko Ingurugelek garatutako tresnen laguntzarekin; datozen urteetan batez ere, Eskolako Agenda 21 ekimenaren lekua hartuko baitu Eskolako 2030 Agendak, eta Lanbide Heziketa ere sartuko baita. Halaber, Eskolako Agenden eta Udalsarea 2030 Udalerri Jasangarrien Euskal Sarea osatzen duten udalerrien Agenden arteko koordinazioak eskolaren eta tokiko administrazioaren arteko harremana ezartzen du, eta horrek tokiko administrazioaren funtzionamenduaren inguruko ezagutza aberasten eta sustatzen du ikasleen artean.</p>	<p>12.8 HELMUGA</p>
<p>4.a. Ikaskuntza-ingurune seguruak, indarkeriarik gabeak, inklusiboak eta eraginkorrak eraikitzea eta egokitzea, ikaskuntza-ingurunean bizitza osoan zehar kontuan hartuta.</p>	<p>Ikastetxeek Helmuga honetan lagun dezakete, bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea bermatuz eta, horrez gain, eskola-ingurunearen eta enpresen arteko bizikidetzaren sustatuko duten ekimenak bultzatuz; adibidez, Eskola Bidea ekimena, inguruko komertzioek kolaboratu baitezakete.</p> <p>Halaber, era guztietako erakundeek ere lagun dezakete Helmuga honetan, kontuan izanda lantokiak ere bizitza profesional guztian zehar ikasteko inguruneak direla, eta bake- eta bizikidetzaren espazio seguru eta inklusiboak ziurtatuz, ikaskuntza eraginkorra izan dadin, eta garapen jasangarriko printzipioekin bat etor dadin.</p>	<p>16.2 HELMUGA</p>



BENETAKO KASUA 4.7 HELMUGA

2030 AGENDA hezkuntza arloan INGURUGELA



ingurugela

INGURUGELAK dira irakasleei eta ikastetxeei laguntzeko ekipamendu publikoko sarea, unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistemak ingurumen-hezkuntzako planak eta programak koordinatzen dituztenak.

Lau Ingurugela daude gaur egun:

- [Gasteizko INGURUGELA.](#)
- [Bilboko INGURUGELA.](#)
- [Donostiako INGURUGELA.](#)
- [Legazpiko INGURUGELA.](#)

INGURUGELA sareak, Eskolako Agenda 21 –Euskadin zabalkunde handia duena– indartu du azkeneko urteotan, jasangarritasunaren alorreko hezkuntza-tresna gisa; ikastetxeetan jasangarritasunarekin zerikusia duten hainbat arlori ekiteko tresna erabilgarri bat txertatzeaz gain, Udalsarea 2030 Udalerri Jasangarrien Euskal Sareko udalerri askorekiko koordinazioko esparru bat ezarri du, eta horren bitartez koordinatu dira Eskolako Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21, eta euskal ikasleek hobeto ezagutu ahal izan dituzte udaletan tokiko politikak eta planak onartzeko eta kudeatzeko dauden mekanismoak.

Beste urrats bat emanez, Ingurugela sarea Eskolako Agenda 21 eraldatzeko lanean ari da gaur egun, eta bi tresna berri eta independente sortuko ditu: Eskolako 2030 Agenda eta Lanbide Heziketarako 2030 Agenda; helburua da euskal ikasleei GJH hurbiltzea, eta are gehiago espezializatuko da Lanbide Heziketako ikasleekin egin beharreko lana.



Genero-berdintasuna eta emakume eta neskatila guztiak ahalduntzea

4 HELMUGA KOMUN 5.1 | 5.2 | 5.4 | 5.5

— HELMUGA SEKTORIALAK -

*  Beste HELMUGA batzuekiko lotura



HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
5.1. Emakume eta neskatilen aurkako diskriminazio modu guztiak desagerraraztea.	Erakundearen barne-mailan: erakunde eta enpresetan ekitatearen aldeko tresnak, berdintasun-programak eta -planak txertatuz.	-
5.2. Emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeria modu guztiak desagerraraztea .	Erakundearen barne-mailan: emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako protokoloak ezarriz. Era guztietako erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, sentsibilizatuz, trebatuz, informatuz, eta lan-ingurunean indarkeria kasuak detektatzeko alerta-sistemak ezarriz.	16.2 HELMUGA
5.4. Etxean eta familian erantzunkidetasuna sustatzea.	Erakundearen barne-mailan: legeak ezartzen duenetik harago, etxeko erantzunkidetasuna sustatuko duten programak txertatuz, kontziliazio-planak ezarriz, sentsibilizazio-kanpainak eginez eta hezkidetzak helburu duten prestakuntza-ekintzak antolatuz.	-
5.5. Emakumeen erabateko parte-hartze eraginkorra eta aukera-berdintasuna ziurtatzea.	Erakundearen barne-mailan: Erakundearen barruan emakumeen ahalduntzea sustatuko duten programak txertatuz, pizgarri-sistemak eta -programak ezarriz.	16.7 HELMUGA



BENETAKO KASUA

5.2 HELMUGA



BASQUETEAM Fundazioa

Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak eta EITB erakunde publikoak bultzatutako ekimena da. Irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta haren interes orokorreko helburua da, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bitartez, goi-mailako euskal kirol ez-profesionala sustatzea, Nazioarteko Olinpiar Batzordeak onartutako modalitate guztietan, nazioarteko goi-mailako lehiaketetan euskal kirolarien parte-hartze handiagoa eta lehiaketa horietan kirol-emitza hobekak lortzeko helburuz.

ZURE TALDEKOAK GARA Kirolaren arloan, diskriminazioa eta indarkeria, sexu-jazarpena eta -gehiegikeria eta sexu-arrazoiengatiko edo beste arrazoi batzuegatiko jazarpena prebenitzea eta horien aurrean jardutea helburu duen ekimena

BASQUETEAM

ZURE TALDEKOAK GARA ekimenaren helburua da, kirolaren arloan, diskriminazio eta indarkeriako egoerak, sexu-jazarpeneko eta -gehiegikeriako kasuak eta sexu-arrazoiengatiko edo beste arrazoi batzuegatiko jazarpena prebenitzea eta horien aurrean jardutea. Kirolari adingabe eta gazteei, eta kirolaren beste estamendu batzuetako emakumeei zuzenduta dago ekimen hori, hala nola, entrenatzaile, epaile, arbitro eta sektoreko beste profesional batzuei, ikastetxeei, kirol-federazioei, etab.

Harremanetarako telefono-zenbaki bat du ekimenak, berdintasunaren arloan adituak diren profesionalen osatutako lantaldeak artatzen duena, zalantzak argitzeko, informatzeko, orientatzeko, edo kirolaren ingurunean diskriminazioko eta indarkeria sexistako egoerak bizi izaten ari direnei edo ikusten dituztenei lagun egiteko.

Eusko Jaurlaritzako Kirol eta Jarduera Fisikoko Zuzendaritzaren eta Emakunderen lankidetzarekin jarri da abian ekimena.



Pertsona guztientzako uraren eta saneamenduaren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria bermatzea

HELMUGA KOMUNA

3 HELMUGA SEKTORIAL

6.3 | 6.4 | 6.6

* Beste HELMUGA batzuekiko lotura

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	*
6.3. Uraren kalitatea hobetzea, kutsadura murriztuz.	Urak esku-hartzen duen prozesuak izanik, ur-kontsumo nabarmenak dituzten erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, haien isurketen kalitatea hobetuz, hobekuntza teknologikoak eginez, eta prozesuak ere hobetuz, legeriak ezarritakoak baino harago doazen emaitzak lortzeko.	11.6 HELMUGA 12.4 HELMUGA
6.4. Sektore guztietan, ur-baliabideen erabilera eraginkorra areagotzea.	Ur-kontsumo nabarmenak dituzten erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, sortzen duten inpaktuaz jabetzeko eta hobekuntza-helburuak ezartzeko tresnak erabiliz, Aztarna Hidrikoa kasu. Lehen sektoreak ere lagun dezake Helmuga honetan, elikadura zirkularreko estrategiak aplikatuz.	9.4 HELMUGA 12.2 HELMUGA
6.6. Urarekin lotutako ekosistemak babestea eta berroneratzea.	Urarekin lotutako ekosistemetan eskumenak dituzten administrazioek zuzenean lagun dezakete Helmuga honetan, ekosistemak babestea eta berroneratzea ziurtatuko duten programen bitartez edo, zeharka, babes hori ziurtatzeko laguntza-lerroen bitartez. Halaber, Helmuga honetan lagun daiteke ingurumenarekin lotutako elkarteekin hitzarmenak eginez eta boluntarioratza-programak sustatuz.	15.1 HELMUGA



BENETAKO KASUA
6. GJH



Uraren kanonaren % 5 lankidetzara **EUSKO JAURLARITZA**

2008. urteaz geroztik, [Eusko Jaurlaritzak](#) uraren kanonagatik bildutako diruaren % 5 garapen bidean dauden herrialdeetan ura eskuratzeko eta saneamendua izateko eskubideaz gozatzeko jarduketak finantzatzera bideratzeko konpromisoa hartu zuen. [URA Uraren Euskal Agentziak](#) Milurtekoko Helburuen esparruan NBerekin egindako lankidetzatik zetorren ekimen hau, eta Garapenerako Nazio Batuen Programaren bitartez eraman zen aurrera. Neurri honen helburua da ur-iturri edota -hornikuntzen jasagarritasuna lortzea eta horiek babestea, jokaera aldaketa bat sustatuta eta ur-xahuketa murriztuta.

Aldi berean, 2011n, [Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak \(GLEA\)](#) bere jarduera hasi zuenean, egokitzen ikusi zen agentzia hori ekimenean sartzea.

Horrela, 2015eko uztailan, 2008an hitzartutako konpromisoa berretsi zen, eta uraren kanonagatik URA agentziak 2015etik aurrera bildutako funtsen % 5 GLEA agentziari ematea xedatu zen, **“Hegoaldeko herrialde pobretuetan ura eskuratzeko eta saneamendua izateko eskubideaz gozatzea ahalbidetuko duten proiektuak finantzatzeko”**.

2015eko azaroan, lankidetzak hitzarmena sinatu zuten URA eta GLEA agentziek, haien arteko harremanak formalizatzeko eta GLEAk uraren kanonaren % 5 hori kudeatzeko modua aurreikusteko. Lankidetzak hitzarmen horrek, gainera, jasotzen du URAk, GLEA agentziarekin batera eta harekin antolatuta, uraren eta saneamenduaren arloko lankidetzak proiektuetan parte hartzeko aukera, laguntza teknikoa emanez.

Adibide modura, 2018ko 2019ko kanonen % 5a **Uraren eta Saneamenduaren arloan Lankidetzako Erakunde Arteko Erdialdeko Amerika-Euskadi Programara** bideratu zen; 2018an, 118.732 €, eta 122.855 €, berriz, 2019an.



Pertsona guztiek energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa izateko aukera bermatzea

— HELMUGA KOMUNA
.....
-

3 HELMUGA SEKTORIAL
.....
7.1 | 7.2 | 7.3

* Beste HELMUGA batzuekiko lotura

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	*
7.1. Energia-zerbitzu eskuragarri, fidagarri eta modernoak eskuratzeko aukera bermatzea.	<p>Herri administrazioek energia-zaurgarritasun egoeran dauden biztanleriako sektoreei gauzak errazteko eta laguntasuna emateko eginkizuna bete dezakete, energia-pobreziako muturreko egoerak arintzeko baliabideak eskaintzeaz gain, herritarrek energia-zerbitzu eskuragarriak izateko modua duela zainduz.</p> <p>Bestalde, EAEko jasangarritasun energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak² hainbat eskakizun ezartzen ditu, euskal herri administrazioaren eraikin eta instalazioen energia-kontsumoen jarraipena eta kontrola egitera bideratutakoak.</p>	-
7.2. Energia berriztagarrien proportzioa handitzea.	<p>4/2019 Legea indarrean sartu zenetik, energia elektrikoa erosteko lizitazioetan, eskuratutako energiaren % 100 jatorri berriztagarrikoa izatea exijitu beharko dute EAEko herri administrazioek. Horrez gain, 2030. urterako, EAEko herri administrazio bakoitzak lortu beharko du bere eraikin guztietan izatea administrazio horren kontsumoaren % 32 hornitzeko energia berriztagarriak aprobetxatzeko behar beste instalazio izatea, aprobetxamendu termikoko sistemak zein sorkuntza elektrikokoak barne.</p> <p>Bestalde, industriaren eta zerbitzuen</p>	9.4 HELMUGA 13.2 HELMUGA

² 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, EAEko jasangarritasun energetikoari buruzkoa: <https://www.boe.es/buscar/pdf/2019/BOE-A-2019-3705-consolidado.pdf>

META	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
	<p>sektoreetarako, Legeak ezartzen du zerbitzuen eta merkataritzaren sektorean, pixkanaka, 2030eko abenduaren 31ra arte, murriztuz joan beharko dela hidrokarburo likidoen kontsumoa –energia-iturri modura–, aipatutako datatik aurrera erabat ordeztu dadin horren kutsagarriak ez diren energia-iturriekin.</p>	
<p>7.3. Energia-eraginkortasunaren tasa bikoiztea.</p>	<p>4/2019 Legeari jarraiki, EAEko herri administrazioek, irizpide orokor modura, energia-kontsumoa % 35 murriztea lortu behar dute 2030. urterako (ezartzen den urtea oinarritzat hartuta). Helburu hori lortzeko, Legeak nahitaez bete beharreko eskakizun batzuk ezartzen ditu; adibidez, 70kW baino gehiagoko potentzia termikoa duten eraikinetan energia-auditoretzak egitea (2 urte, Legea onartu zenetik), eta B energia-kalifikazioa baino baxuagoa duten eraikinen % 40ren energia-kalifikazioa hobetzea, maila hori lortzeraino (2030. urterako).</p> <p>Industriaren eta zerbitzuen sektoreei dagokienez, Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalean non sailkatzen diren, Legeak ezartzen du derrigorrezkoa izango dela haien ekipo, instalazio, eraikin, berotze- eta hozte-sistema, ibilgailu-parke eta argiteriaren energia-auditoretzak egitea, aurrezpen-neurriak eta energia-eraginkortasuneko neurriak hartzeko, eta instalazio berriztagarriak jartzeko helburuz.</p>	<p>9.4 HELMUGA</p> <p>13.2 HELMUGA</p>



Pertsona guztientzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta lan duina sustatzea

2 HELMUGA KOMUN


8.3 | 8.4

5 HELMUGA SEKTORIAL

8.2 | 8.5 | 8.6 | 8.8 | 8.9

* Beste HELMUGA batzuekiko lotura

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	*
8.2. Produktibitate ekonomikoa hobetzea, dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren bitartez.	Enpresa-sektoreak zein enpresa-munduarekin lotutako erakundeek –hala nola merkataritza-ganberrek, klusterrek, etab.– lagun dezakete Helmuga honetan, I+G+b-aren aldeko apustua eginez eta haren onuren zabalkundea eginez.	9.5 HELMUGA
8.3. Lanpostu txukunen sorkuntza, ekintzailtza, sormena eta berrikuntza sustatzea.	Era guztietako erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, prestakuntza dualeko programetan parte hartuta, eta Nazioarteko erreferentziatzko Hitzarmenekin bat datozen lan duinerako baldintzak bermatuko dituzten neurriak ezarrita, bai eta, erakundeen barruan, langileen sormena eta berrikuntza sustatzeko espazioak irekita. Enplegua eta garapen ekonomikoa sustatzen dituzten erakundeek ere lagun dezakete Helmuga honetan, ekintzailtzako programen bitartez, hezkuntza-sektorearekiko loturak ezarriz, hezkuntzaren arlotik lan-mundurako trantsizioa errazteko, edo prestakuntza duala sustatuz. Patronalek eta sindikatuak, bestalde, Helmuga honetan lagun dezakete beren jardunean, lan-baldintzetan modu integralean eraginez, lan duina ezartzen dela zaindu, eta berrikuntzaren aldeko apustua sustatuz, betiere indarrean dauden Nazioarteko Hitzarmenen araberrako gizarte- eta lan-arloko estandarrak bermatuta.	9.5 HELMUGA

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
8.4. Baliabideen ekoizpen eta kontsumo eraginkorra hobetzea, eta hazkunde ekonomikoa ingurumenaren degradaziotik bereiztea.	<p>Era guztietako erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, baliabideen erabilera eraginkorra ziurtatuko duten kudeaketa-tresnen bitartez, eta haiekin dakartzaten alderdi sozial eta ekonomikoekin lotutako helburu ekonomikoak ezartzen direla zainduz.</p>	<p>9.4 HELMUGA 12.2 eta 12.6 HELMUGAK 14.2 HELMUGA</p>
8.5. Pertsona guztientzako enplegu duina eta balio bereko lanagatiko ordainsari-berdintasuna lortzea.	<p>Enpleguak dituzten erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, berdintasunaren arloko hitzarmenen eta planen bitartez, baita erakundearen barruan soldata-arrakala murrizteko soldata-politikekin ere.</p> <p>Sindikatuak Helmuga honetan lagun dezakete, soldata-berdintasuna ziurtatuko duten neurrien aplikazioan aukera-berdintasuna bermatzen dela zainduz, eta erakundeetan soldata-arrakala murrizteko neurriak sustatuz.</p>	<p>14.4 HELMUGA</p>
8.6. Enplegurik gabe eta ikasten ari ez diren gazteen proportzioa murriztea.	<p>Herri administrazioek eta enpleguaren arloan lan egiten duten erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, hezkuntzaren arloko erakundeekiko lankidetzaren indartuz, gazteen hezkuntza-bizitzaren eta lan-bizitzaren artean hutsunerik egon ez dadin ziurtatuz, ekimen berriak sustatuta, adibidez, araututako prestakuntza osatzeko prestakuntza-programak txertatuko dituztenak.</p>	<p>4.3 HELMUGA</p>
8.8. Lan-eskubideak babestea, eta lan-ingurune seguru eta arriskurik gabeak sustatzea.	<p>Enpleguak dituzten erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, arrisku-egoeren prebentzioa ziurtatuko duten prestakuntza- eta informazio-protokoloak eta -jardunbideak ezarrita.</p> <p>Sindikatuak ere egin dezakete euren ekarpena, pertsona guztientzako lan-ingurune seguruak eta arrisku gabeak sustatuz.</p>	<p>3.4 HELMUGA 4.a HELMUGA 14.4 HELMUGA</p>
8.9. Lanpostuak sortu eta bertako kultura eta produktuak sustatuko dituen turismo jasagarri bat sustatzea.	<p>Herri administrazioek eta turismoarekin lotutako erakundeek egin diezaioke beren ekarpena Helmuga honi, turismo jasagarria bultzatuko duten planak, politikak eta estrategiak sustatuz, eta sektoreko establezimenduentzako prestakuntzako eta laguntzako tresnak bultzatuz.</p>	<p>-</p>



BENETAKO KASUA 8.3 HELMUGA

Tknika

Ikerketa Zentroa Euskadiko LHn
Centro de Investigación en FP Euskadi
Basque VET Research Centre

TKNIKA EAeko Lanbide Heziketako Ikerkuntza eta Berrikuntza aplikatuko zentroa da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzak bultzatutakoa. Tknikaren jardueraren ardatz nagusia ikerkuntza eta berrikuntza aplikatua dira, Euskadiko Lanbide Heziketa Europakoaren mailan posiziona dadin.

Berrikuntza Lanbide Heziketan Tknika

Sei ardatzetan egituratzen da Tknikaren jarduera:

- Berrikuntza teknologikoa eta sistema adimendunak
- Konplexutasunaren kudeaketa
- Ikaskuntzak eta goi-mailako errendimendua
- Ingurune estrategikoetan aplikatutako berrikuntza
- Nazioartekotzea
- Bio-zientziak eta jasagarritasuna

Adibide modura, Ikaskuntza eta Goi-mailako Errendimenduaren sailak hainbat jarduketa-ildo garatzen ditu, hala nola: erronkatan edo sormenezko pentsamenduan oinarritutako lankidetzak-ikaskuntza, sormenean eta berrikuntzan oinarritutako lanpostuak sortzea sustatzeko funtsezko gaiak.



BENETAKO KASUA 8.3 HELMUGA

TUBACEX GROUP

TUBACEX soldadurarik gabeko eta nikelzko aleazio handiko altzairu herdoilgaitzezko soldadurarik gabeko hodi-formako soluzioak fabrikatzen jarduten duen konpainia da.

Kalitatezko enplegua eskuratzea, TUBACEX Fundazioaren prestakuntza dualaren bitartez

Tubacex

2016ko otsailean, bere fundazio propioa sortu zuen TUBACEXek ([Tubacex Fundazioa](#)), Nazio Batuen Garapen Jasagarriko Helburuekin duen konpromisoa bideratzeko, hiru lan-ardatz nagusiren bitartez:

- kalitatezko prestakuntza sustatzea,
- zona behartsuetan hezkuntza bultzatzea, edo
- ezberdintasunak murriztea, besteak beste.

Kalitatezko prestakuntzaren sustapenari dagokionez, nabarmentzekoak dira TUBACEXen [prestakuntza dualeko](#) programak, erakunde publikoekin eta lanbide heziketako ikastetxeekin batera bultzatutakoak, gazteen gaitzari lagunduz, eta gazteek **kalitatezko enplegu bat eskuratzeko** aukera bultzatzeaz gain, ingurune global batean haien enplegarritasuna sustatuz. 2016an definitu zituzten ikuspegi bikoitz horretatik, eta gaur egun prestakuntza-eskaintza osoa dute, hala nola mantenu elektromekanikoa, estrusio beroko prozesuetan espezializatutako ekoizpena eta saiakuntza ez-suntsitzaileak. Lau urteko programak dira, eta lantokietan egiten da horien % 75, eta ikastetxeetan gainerako % 25a, eta hor sartzen da, modu berezian, nazioarteko urtebeteko esperientzia TUBACEXek munduan dituen lantegietako edozeinetan.

Ildo horretarako, hitzarmenak izenpetu ditu Tubacex Fundazioak, hainbat erakunderekin: Eusko Jaurlaritza, Austriako Merkataritza-ganbera eta lanbide heziketako hainbat ikastetxe, besteak beste.




Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inlusibo eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea

— HELMUGA KOMUNA
.....
-

3 HELMUGA SEKTORIAL
.....
9.1 | 9.4 | 9.5

* Beste HELMUGA batzuekiko lotura

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	*
9.1. Azpiegitura fidagarri, jasangarri, erresiliente eta kalitatezkoak garatzea.	Azpiegituretan eskumenak dituzten erakunde publikoek, energia sortzen eta banatzen duten enpresek, ingeniartzako enpresek, zentro teknologikoen eta unibertsitateek egin dezakete beren ekarpena Helmuga honetan, azpiegituren jasagarritasunarekin eta erresilientziarekin bat datorren etorkizunera begirako ikuspegia txertatuz, eta klima-aldaketaren ondorioz espero diren aldaketetarako prestatuz eta horietara egokituz.	-
9.4. Industriak berregituratzea, jasangarriak izan daitezen, baliabideak eraginkortasun handiagoz erabilia eta teknologia garbiena erabilera sustatuta.	Industria-sektoreko enpresek lagun dezakete Helmuga honetan, sektorialagoak diren beste Helmuga batzuekiko erlazioa kontuan hartuta, egoerari aurrea hartuz eta ingurumenarekiko inpaktua murrizteko neurriak hartuz. Herri administrazioek ere egin dezakete beren ekarpena, industria-sektoreko enpresetan aldaketak bultzatuz, diru-laguntzen bitartez edo, daudenez gain, irizpide berriak gehituz. Ikerkuntza-zentroek eta unibertsitateek ere egin diezaioke ekarpena Helmuga honi, hazten ari diren esparruetan ezagupenak eskainiz eta jakintza hori industria-enpresetara eramanez.	6.4 HELMUGA 7.2 eta 7.3 HELMUGAK 12.4 HELMUGA

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
<p>9.5. Berrikuntzaren eta ikerkuntzaren bitartez, industria-sektoreen gaitasun teknologikoa hobetzea.</p>	<p>Industria-sektoreko enpresek lagun dezakete Helmuga honetan, proiektu berritzailetan inplikatur edo ikerkuntza-zentroekin eta/edo unibertsitateekin hitzarmenak eginez.</p> <p>Erakunde publikoek ere egin diezaioke beren ekarpena Helmuga honi, zientziako eta teknologiko ikerkuntza-proiektuen aldeko apustua eginez.</p>	<p>8.2 HELMUGA</p> <p>14.a HELMUGA</p>



BENETAKO KASUA

9.4 HELMUGA



A&B Laboratorios de Biotecnología S.A.U. Arabako familia-enpresa txiki bat da, eta garbiketa eta desinfekzioaren, industria-mantenuaren eta uren tratamenduaren arloetan soluzio eraginkorrak eskaintzen dituzten produktu kimiko eta biologiko berritzaileak ikertzen, diseinatzen, egiten eta merkaturatzen ditu.

32 laguneko lantaldea du, eta 5 milioi euro inguruko fakturazio-maila; esportazioak dira salmenten % 25.

Ecoinnovación como estrategia de competitividad

A&B Laboratorios de Biotecnología S.A.U.

A&B Bioteknologiako Laborategiak Kalitatearen Kudeaketa, Ingurumen, I+G+b eta Eko-diseinuko Sistema Integratua ezarri du, eta produktuaren bizitza-ziklo osoko ingurumen-ebaluazioko metodo berritzaileak garatu ditu, karbono-aztarna eta ingurumen-aztarna kalkulatur eta, gainera, Ekolabelen eskakizunekin eta kostuen kalkuluarekin bateratur. Horri guztiari esker, produktuek haien bizitza-ziklo osoan duten inpaktua nabarmen minimizatzeke erabaki objektiboak har daitezke. Eko-diseinuaren metodologiarekin garatzen dira produktu berri guztiak.

Berrikuntza jasangarriaren ikuspegi horrek erakundearen lehiakortasuna hobetzea ahalbideratu du, eta hainbat sari jaso ditu: Ingurumenaren Europako Saria 2018an, Quality Innovation Awards saria 2018an, Ohorezko Aipamena Gasteizko Udalaren Itun Berdearen 2018ko sariketan.



Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean ezberdintasunak murriztea


3 HELMUGA KOMUN 10.2 | 10.3 | 10.7

1 HELMUGA SEKTORIAL 10.4

* Beste HELMUGA batzuekiko lotura



HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	*
10.2. Pertsona guztien gizarteratzea, inklusio ekonomiko eta politikoa bultzatzea eta sustatzea.	<p>Administrazioek eta hirugarren sektore sozialak lagun dezakete Helmuga honetan, lankidetzaz bultzatuz eta eraginkortasun handiagoa ziurtatuko duten koordinazio-tresnak indartuz.</p> <p>Era guztietako erakundeek ere egin dezakete beren ekarpena, maila guztietan integrazteko laguntza-programak behar dituzten pertsonak identifikatuz; adibidez, ahaldundutza-programak, boluntariotza-programak edo laguntza-sareak.</p>	-
10.3. Pertsona guztiei aukera-berdintasuna bermatzea.	<p>Erakunde guztiek egin diezaiokete beren ekarpena Helmuga honi, pertsona guztiei aukera-berdintasuna bermatzea zainduko duten politikak eta konpromisoak beren gain hartuta.</p>	-
10.4. Berdintasun-maila handiagoa lortzeko politika fiskalak, soldata-politikak eta babes sozialekoak ezartzea.	<p>Administrazioek lagun dezakete Helmuga honetan, kolektibo ahulenentzako politika fiskalak eta babes-politikak ziurtatuz, berdintasun handiagoa ziurtatzeko.</p> <p>Enpresek, sindikatuek eta gizarte-arloko erakundeek ere egin dezaketen beren ekarpena, zaugarritasun edo ezberdintasun egoeran egon daitezkeen langileei zuzendutako informazio- eta laguntza-mekanismoak ezarriz.</p>	10.2 HELMUGA

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
<p>10.7. Pertsonen migrazio eta mugikortasun antolatua, segurua, erregularra eta arduratsua bermatzea.</p>	<p>Era guztietako erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, migratzaileentzako informazioa eta laguntza emanez, migratzaileak hartzeko ekimenak sustatuz eta irekiz edo, hala badagokio, inguruko migratzaileei laguntza ematen dieten elkarteei zerbitzu ekonomikoa emanez.</p>	-



BENETAKO KASUA

10.2 HELMUGA



Euskadiko UNESCO Etxea irabazi asmorik gabeko elkartea da, 1991n sortutakoa, euskal ingurunean UNESCO erakundearen (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen erakunde bat) printzipioak eta programak sustatzeko.

“Pertsonak erdigunean” lan-taldea

UNESCO Etxea

Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziaren laguntzarekin, **“Pertsonak erdigunean” Lan-taldea** jarri zuen martxan 2019an, euskal testuinguruan eta euskal politika publikoetan 2030 Agendaren **“inor atzean ez uztearen”** esanahiari buruz ikertzeko, hausnartzeko, eztabaidatzeko eta partekatzeko espazio gisa.

Horretarako, hainbat ekimena ari dira martxan jartzen: Euskadin zaugarritasun egoeran dauden taldeen egoera aztertzea, txosten bat egitea, herritarrei zaugarritasun egoera horien berri emateko komunikazio-kanpaina bat egitea, eta erakunde publikoekin hitz egitea, euskal politika publikoetan egoera horiek kontuan har ditzaten.

Ekimen honek, gainera, Aldarte zentroaren, AMUGE Emakume Ijitoen Elkartearen, Emakumeak Aniztasunean elkarrearen, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) eta Munduko Landagunearen Foroaren laguntza izan du.



Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izan daitezzen lortzea


2 HELMUGA KOMUN

11.2 | 11.6

6 HELMUGA SEKTORIAL

11.1 | 11.3 | 11.4 | 11.5 | 11.7 | 11.b

*  Beste HELMUGA batzuekiko lotura

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
<p>11.1. Pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egoki, seguru eta eskuragarriak izan ditzaten ziurtatzea.</p>	<p>Administrazioek eta hirugarren sektore sozialeko erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, gizarte, etxebizitza eta oinarrizko zerbitzuen arloko legeriaren bitartez, hura indartuko duten planak eta estrategiak sustatuz.</p>	-
<p>11.2. Garraiatzeko modu jasangarrien erabilera sustatzea.</p>	<p>Maila guztietako herri administrazioek egin dezakete beren ekarpena Helmuga honi dagokionez, garraio publikoaren sarea hobetuz eta garraio jasangarriko ereduak sustatuz.</p> <p>Era guztietako erakundeek ere lagun dezakete Helmuga honetan, haien langileen artean informazioa zabalduz eta sentsibilizatuz eta, are, garraio-modu seguru eta jasangarriak sustatuz.</p>	<p>3.9 HELMUGA</p>
<p>11.3. Urbanizazio inklusiboa, parte-hartzailea eta jasangarria areagotzea.</p>	<p>Herri administrazioek egin diezaiokete beren ekarpena Helmuga honi, hainbat ekimenen bitartez, hala nola "Haurtzaroaren Hiri lagunkoiak", Lagunkoia programak, guno beltzen mapak... eta hirigintza-plangintzako prozesuetan herritarren parte-hartzea ziurtatuz.</p>	-



HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
11.4. Kultura- eta natura-ondarea babestea eta zaintzea.	<p>Kultura- eta natura-ondarearen babesarekin lotutako administrazio eta erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, sentsibilizazio- eta informazio-kanpainen bitartez ondareari balioa emanez, eta ondare hori zaintzeko planak eta programak martxan jarritz.</p>	-
11.5. Hondamendiek eragindako heriotza kopurua murriztea.	<p>Klima-aldaketara egokitzeko eta erresilientziako azterlanak eta planak egiten dituzten herri administrazioek egin dezakete beren ekarpena Helmuga honi dagokionez, arrisku nagusiak identifikatuz eta lehenetsiz, eta babes zibila informatuz eta harekin kolaboratuz.</p> <p>Babes zibileko eta segurtasuneko erakundeek ere egin dezakete beren ekarpena, alerta goiztiarrekoko sistemak ezarriz, hondamendien ondoriozko arriskuak murrizteko.</p>	1.5 HELMUGA 13.1 eta 13.3 HELMUGAK
11.6. Hirien eta herrien ingurumenarekiko inpaktu negatiboa murriztea, arreta berezia eskainiz airearen kalitateari eta hondakinen kudeaketari	<p>Udalez gain –haien ingurumen-planekin–, era guztietako erakundeak daude gure hiri eta herrietan, eta haien jarduerak erakundeok osatzen dituzten pertsonen eguneroko mobilizazioa sortzen dute. Zentzu horretan, edozein erakundek lagun dezake Helmuga honetan, bizitza-ohitura jasangarriagoak eta garraio-modu seguru eta jasangarriak sustatuz.</p>	3.9 HELMUGA
11.7. Herritar guztiek, batez ere emakumeek, haurrek, adineko pertsonak eta ezgaitasuna dutenek, berdegune eta espazio publiko seguru, inklusibo eta irisgarrietara iristeko aukera izan dezaten ziurtatzea.	<p>Administrazioek eta jende asko mobilizatzen duten erakundeek (unibertsitateak, ospitale-guneak, ikastetxeak...) egin diezaiokete beren ekarpena Helmuga honi, eremu eta espazio publiko eta irekietan berdea nagusi dadin jarduketak sustatuz eta, gainera, pertsona guztientzako irisgarritasun- eta segurtasun-irizpideak ezarriz.</p>	-
11.b. Gizarteratzea, baliabideen erabilera eraginkorra, klima-aldaketaren eraginak arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko modua eta hondamendien aurreko erresilientzia sustatzeko politikak eta planak egiten eta ezartzen dituzten hiri eta herrien kopurua handitzea.	<p>Udalek lagun dezakete Helmuga honetan, klima-aldaketaren eragina arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko planak eginez, horretarako baliabide teknikoak eta ekonomikoak jarritz eta planok ezarriz.</p> <p>Administrazioek, zentro teknologikoen zein ingurumen izaerako gizarte-plataformek ere egin dezakete beren ekarpena, udalerriek klima-aldaketaren eraginak arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko planak egin eta ezar ditzaten sustatuz eta lagunduz.</p>	13.2 HELMUGA



BENETAKO KASUA 11. GJH

Euskal udalerrietan Tokiko 2030 Agenda bultzatzea

UDALSAREA 2030

udalsarea 2030

udalerrri jasangarrien euskal sarea
red vasca de municipios sostenibles



Udalsarea 2030 Udalerri Jasangarrien Euskal Sarea, tokiko politiketan jasangarritasuna txertatzea bultzatzen eta dinamizatzen duen koordinazio eta lankidetzako foroa da. 186 udalerrrik osatzen dute, eta haiek dira sareko protagonista nagusiak, baina beste kide batzuk ere baditu: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Osasun Saila eta Garraio Zuzendaritza, Uraren Euskal Agentzia (EVE), Energiaren Euskal Erakundea (EEE), Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta Ihobe Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa sarearen Idazkaritza Tekniko gisa.

Udalsarea 2030 sareak hainbat ekarpen egin dizkio 2030 Agendari; nabarmentzekoak dira, besteak beste, honako hauek:

- [Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei](#) txostena (2018ko ekaina). Euskal udalerriek Garapen Jasangarriko 17 Helburuetako bakoitzari egiten dioten ekarpena aurkezten eta aztertzen du txostenak, 2030 Agendak, bere Helburu eta Helmugen bitartez, euskal udalerrien jasangarritasun-politiketarako planteatzen dituen erronka berriak identifikatzeko helburuz. 2020an txostena hori eguneratzeko asmoa dago.
- [Tokiko 2030 Agenda. Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik.](#) Gida praktikoa (2019ko maiatza). Gida horren helburua da, Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) eta haien Helmugak tokiko erakundeen testuingurura egokituta, Tokiko 2030 Agenda bat prestatzeko beharrezko jarraibideak ematea. Halaber, Garapen Jasangarriko Adierazleak udalerrriaren testuingurura egokitzeko modua eskaintzen du, baita udalerriek GJHei egiten dioten ekarpena neurtzeko jarraibideak ere.
- 2019. urte amaieran 2020. urte hasieran, [Tokiko 2030 Agenda Lan-taldea](#) jarri du martxan; 60 udalerrrik hartzen du parte, esperientziak eta ezagupenak partekatzean oinarritutako topaketa dinamiko baten bitartez, 2030 Agenda modu eraginkorrean ezartzea bultzatzeko, 2030 Agenda tokiko politiketan garapen jasangarriaren zeharkakotasuna lortzeko tresna izan dadin.



BENETAKO KASUA

11.4 HELMUGA

ARKITEKTURARI eta HIRIGINTZARI buruzko DAVOS HIRIKO 2018ko ADIERAZPENAREKIN bat egitea COAVN

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren funtsezko helburua da gizartearen interes orokorraren zerbitzari izatea, arkitektoen berezko eginkizunak hobeto egitea sustatuz, eta elkargokideen jardun profesional egokia zainduz eta aginduz. Eginkizun sozialtzat ulertzen du Arkitektura Elkargoak.

Euskadi eta Nafarroako arkitekturaren sektoreak, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak bultzatuta, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarekin batera, bultzatu zuen Davoseko Adierazpena sinatzea; BAUKULTUR delakoa aldarrikatzen du adierazpen horren, epe laburrerako etekin ekonomikoen gaineratik, bizi izateko kultura, hain zuzen ere. Eraikitako ingurunearen planteamendu berria, kulturaren ikuspegiaren eta gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunean oinarrituta dagoena, eta emaitzak ebaluatzeko 10 urteko aldia planteatzen duena.

2019ko abenduan, beste euskal erakunde batzuek ere bat egin zuten Adierazpen horrekin, besteak beste, hiru foru aldundiek, eta kulturaren, arkitekturaren eta hirigintzaren munduko 17 erakunde inguruk.

Suitzako Gobernuak bultzatu zuen agiri hori 2018an, "Europarako kalitate handiko Baukultur baterantz" izenekoa, Ondarearen Europako Urtearen barruan.

Davoseko Adierazpenari eta atxikipenei buruzko informazio zabalagoa, hemen:

<https://davosdeclaration2018.ch>



Kontsumo- eta ekoizpen-eredu jasangarriak bermatzea

2 HELMUGA KOMUN

12.2 | 12.6

7 HELMUGA SEKTORIAL

12.3 | 12.4 | 12.5 | 12.7 | 12.8 | 12.a | 12.b

* Beste HELMUGA batzuekiko lotura

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	*
<p>12.2. Natura-baliabideak modu jasangarrian kudeatzea eta modu eraginkorrean erabiltzea lortzea.</p>	<p>Egiten duten natura-baliabideen kontsumoarekiko eta kudeaketarekiko modu koherentean, erakunde guztiek lagun dezakete Helmuga honetan, baliabideen erabileraren eraginkortasuna hobetuz –uraren eta energiarena, esaterako–, eta sortzen dituzten hondakinak modu jasangarrian kudeatuz.</p> <p>Jarduera bulegoetan duten erakundeen kasuan, esaterako, modu bateratuan sar daitezke ingurumen-alderdi guztiak Helmuga horren barruan.</p> <p>Duten jardueragatik inpaktu nabarmena duten erakundeen kasuan –urari edo energiari dagokienez, esaterako–, dagokion Helmuga sektoriala aukeratu beharko da, erreferentziazko Helmugetan txertatzea ziurtatzeko.</p>	<p>6.4 HELMUGA</p>
<p> 12.3. Elikagaien xahuketa erdira murriztea.</p>	<p>Hauxe da Nazio Batuen Erakundeak planteatzen dituen erronka zehatzenetako bat; hainbat sektore edo talderi eragiten dio, hala nola elikagai-ekoizpeneko sektoreari, banaketa- eta merkaturatze-kateei, elikagaien prozesatze sektoreari, ostalaritzari eta etxebizitzeari.</p> <p>Erakunde askok lagun dezake Helmuga honetan, elikadurarekin duten erlazio-mailarekiko koherentzian (baita jantokiak</p>	<p>–</p>

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
	<p>dituzten erakundeek ere), elikaduren xahuketa murrizteko neurriak ezarriz, langileak sentzibilizatuz, edo hainbat ekimenekin kolaboratuz, Elikagaien Xahuketaren aurkako Euskadiko Plataformarekin, adibidez.</p> <p>Halaber, elkarte askok ere egin diezaiokete ekarpena Helmuga honi, elikagaiak xahutzea prebenitzeko neurriak jarritz, edo oraindik kontsumitzeko moduan dauden jakiak ematea bezalako irtenbide sozialak bilatuz.</p>	
<p>12.4. Atmosferara egiten diren emisioak eta uretara eta lurzorura egiten diren isurketak murriztea.</p>	<p>Atmosferarako emisioak, isurketak edo hondakinak sortzen dituzten erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, dituzten tratamendu-instalazioak hobetuz, hondakinak prebenitzeko planen bitartez, edo ekonomia zirkularren printzipioetan oinarritutako kudeaketaren bitartez.</p> <p>Ekitaldiak antolatzen dituzten erakunde publiko zein pribatuek ere egin dezaketen euren ekarpena, Erronka Garbia bezalako ekimenen bitartez; ekitaldi jasangarriagoak sustatzen ditu ekimen horrek.</p> <p>Herri administrazioek, bestalde, araudiaren bitartez eta haren jarraipena eginda lagun dezakete, mugikortasun jasangarriko planak sustatuz, eta ikerkuntza bultzatuz eta lurzoru kutsatuak berroneratuz, besteak beste.</p>	<p>6.3 HELMUGA</p> <p>9.4 HELMUGA</p>
<p>12.5. Hondakinen sorkuntza nabarmen murriztea, prebentzioaren, murrizpenaren, birziklapenaren eta berrerabiltzearen bitartez.</p>	<p>Era guztietako erakundeek egin diezaiokete beren ekarpena Helmuga honi, hondakinak sortzen edo kudeatzen dituztenek batez ere, ekonomia zirkularrean oinarritutako plangintzaren bitartez, eta hondakinen prebentzioa, murrizpena, birziklapena eta berrerabilpena sustatuz.</p> <p>Ekitaldiak antolatzen dituzten erakunde publiko zein pribatuek ere egin dezaketen euren ekarpena, Erronka Garbia bezalako ekimenen bitartez; ekitaldi jasangarriagoak sustatzen ditu ekimen horrek.</p>	<p>14.1 HELMUGA</p>
<p>12.6. Erakundeetan jardunbide jasangarriak erabiltzea, eta jasangarritasunaren inguruko informazioaren berri ematea.</p>	<p>Enpresa handiek, enpresa-taldeek eta erakunde publikoek lagun dezakete Helmuga honetan, beraien memorietan arreta berezia eskainiz GJHei egiten dien ekarpenari eta arlo horri dagokionez egiten duten lanari; horretarako, baina, euren erreferentziazko Helmugak identifikatu eta jarraipena egiteko adierazleak identifikatu beharko dituzte aldez aurretik.</p>	<p>16.6 HELMUGA</p> <p>17.9 HELMUGA</p>

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
12.7. Erosketa publiko jasangarriko jardunbideak ezartzea.	<p>Erakunde publikoek egin diezaiokeite Helmuga honi haien ekarpena, erosketa publiko arduratsuarekiko konpromiso irmoa hartuta, eta Euskadin dauden erosketa eta kontratazio publikoko planetan oinarrituta, bai eta lhobek, (Eusko Jaurlaritzako Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoak), zerbitzu-tipologia ezberdinetarako sortuta dituen baliabideetan ere.</p>	-
12.8. Herritarrei naturarekin harmonian egoteko bizitza-estiloak sustatzeko informazioa ematea.	<p>Turismo-baliabideak, interpretazio-zentroak eta paseo eta bidezidorrekin lotutako programa didaktikoak kudeatzen dituzten erakundeek zein turismo-sektoreak eta naturarekin harmonian dauden bizitza-estiloak lortzea helburutzat duten eta ingurumenarekin lotura duten erakunde sozialek lagun dezakete Helmuga honetan, haien ezagupenak transferituz eta ezagupen horien zabalkundea eginez.</p>	4.7 HELMUGA
12.a. Garapen bidean dauden herrialdeei kontsumo- eta ekoizpen-modalitate jasangarriagoetarantz aurrera egiteko duten gaitasun zientifikoa eta teknologikoa indartzen laguntzea	<p>Garapen bidean dauden herrialdeekin lan egiten duten erakunde publikoek, ikerkuntza-zentroek, unibertsitateek eta garapen bidean dauden herrialdeetan eskumendeko enpresak dituzten erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, jakintza transferitzeko programen bitartez, garapen bidean dauden herrialdeekin I+G+b-ko lankidetzak-programak eginez, edo nazioarteko sareetan eta jakintza elkartrukatzeko foroetan modu aktiboan parte hartuz.</p>	-
12.b. Garapen jasangarriaren gaineke eraginak zaintzeko tresnak egitea eta aplikatzea, lanpostuak sortu eta bertako kultura eta produktuak sustatuko dituen turismo jasangarri bat lortzeko helburuz.	<p>Ostalaritza, turismo eta merkataritzako sektoreetako erakundeek zein horiekin harremana duten erakunde publikoek eta merkataritza-ganberek beraien ekarpena egin diezaiokeite Helmuga honi, hainbat konpromiso hartuta, hala nola Turismo Jasangarriaren Europako Gutuna, edo Eko-etiketa bezalako ziurtapen-sistemak ezarrita.</p>	14.1 HELMUGA



BENETAKO KASUA

12.3 HELMUGA

Elikagaien Xahuketaren aurkako Euskadiko Plataforma sortzea

ELIKA Fundazioa



ELIKA Nekazaritzako Elikagaien Seguratasunerako Euskal Fundazioa da, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Industriako Sailburuordetzari atxikita dagoena, eta elikagaien seguratasunari buruz aholkatzen ditu administrazioa eta nekazaritzako elikagaien sektorea, eta herritarrak informatzen ditu.

2018ko urrian, [Elikagaien Xahuketaren aurkako Euskadiko Plataformaren](#) sorrera bultzatu zuen ELIKA Fundazioak; Euskadiko 60 erakunde publiko eta pribatuk osatzen du plataforma hori hasiera batean, eta elikagaien xahuketaren aurka borrokatzeko konpromiso bat (Manifestua) sinatu zuten. Horrek, lehenik eta behin, elikaduraren kateko maila guztiak eta eragile sozial eta politikoak sentibilizatzea ahalbideratzen du, erakundeek aurreranzko urrats bat ematea eta beren arlotik lan egiteko konpromisoa hartzea publikoki eta, bestalde, herritarren aurrean baterako konpromisoa ezagutaraztea.

Gaur egun, 100 erakunde publiko eta pribatu, tokiko erakunde, foru erakunde, Jaurlaritzako sail, profesionalen elkarte, federazio, enpresa, zentro teknologiko eta bestek osatzen dute plataforma.

Nazioarteko aintzatespena jaso du ekimenak, eta Elikagaien Xahuketaren aurkako Nazioarteko Sare batean sartu dute.





Klima-aldaketari eta haren eraginei aurka egiteko presazko neurriak hartzea

1 HELMUGA KOMUN 13.2

2 HELMUGA SEKTORIAL 13.1 | 13.3

* Beste HELMUGA batzuekiko lotura

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	*
 <p>13.1. Herrialde guztietan, klimarekin eta hondamendi naturalekin zerikusia duten arriskueta egokitzeko gaitasuna eta erresilientzia indartzea.</p>	<p>Lehen sektoreko eta industria-sektoreko enpresek lagun dezakete Helmuğa honetan, aldez aurretik egindako ikerketa-proiektuetan eta jakintza zientifikoan oinarrituta beraien burua informatuz eta trebatuz.</p> <p>Herri administrazioek eta ikerkuntza-zentroek ere egin dezakete beren ekarpena, klima-aldaketarekin lotutako arriskueta egokitzeko gaitasuna ziurtatzeko azterlanak eta planak sustatuz.</p> <p>Ingeniaritzaren eta arkitekturaren sektoreetan lan egiten duten erakunde, enpresa eta profesionalek ere egin dezaketen beren ekarpena, haien proiektuetan arriskuei aurrea hartuko dieten neurriak kontuan hartuz eta, era horretan, eraikin eta eraikuntza berrien erresilientzian lagunduz.</p>	<p>14.2 HELMUGA</p>
<p>13.2. Klima-aldaketarekin zerikusia duten neurriak hartzea (arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko neurriak).</p>	<p>Erakunde guztiek lagun dezakete Helmuğa honetan, beren jardueraren ondoriozko berotegi-efektuko gasen emisioak murriztuz (batez ere energia-kontsumoarekin eta mugikortasunarekin lotutakoak), bai eta klima-aldaketarekin lotutako arriskuei aurrea hartuz (gizakien osasunean dituen arriskuak, biodibertsitatean, lehenengo sektorean...); hasteko eta behin, eragiten dieten arriskuak identifikatzeko informatuz, eta horiek murrizteko neurriak jarriz.</p>	<p>7.2 eta 7.3 HELMUGAK</p> <p>11.b HELMUGA</p>

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
<p>13.3. Klima-aldaketa arintzeari eta aldaketa horretara egokitzeari, klima-aldaketaren ondorioak murrizteari eta alerta goiztiarrari dagokionez, gizakien eta erakundeen heziketa, sentsibilizazioa eta gaitasuna hobetzea.</p>	<p>Hezkuntza-sektoreak Helmuga honetan lagun dezake, prestakuntza-planen edo sentsibilizazio-kanpainen bitartez, aldeztu aurretik dauden baliabideen laguntzarekin. Komunikabideek lagun dezakete Helmuga honetan, behar bezala emanez klima-aldaketarekin zerikusia duen guztiaren inguruko informazioa. Horretarako, Klima Aldaketaren alorrean lan egiten duten euskal erakundeengandik jaso dezakete informazioa komunikabideek eta, are, berariaz komunikabideentzako sortutako gai horri buruzko baliabideen bitartez.</p>	<p>1.5 HELMUGA</p> <p>2.4 HELMUGA</p>



BENETAKO KASUA

13.1 HELMUGA



[Euskadiko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarrien Elkargoa \(CAMINOS EUSKADI\)](#)
Zuzenbide Publikoko

Korporazio bat, demokratikoki eratutako egiturak dituen, ordezkaritzakoa eta berezko nortasun juridikoa duena. Euskadin lan egiten duten 1.000 profesionaleko kolektiboak osatzen du elkargoa, eta onura publikoko bokazio eta konpromiso argia ditu elkargokideen lan-arloetan.

Jardunaldia: “GJH eta Klima-aldaketa, ingeniartzaren erronka garaikideak”

CAMINOS EUSKADI

2019an, GJHei buruzko sentsibilizazio-jardunaldia egin zuen Elkargoak, eta 13. Helburua –Klimaren aldeko Ekintza– bide, ubide eta portuetako ingeniartzako profesionalen kolektiboarentzat erronka/aukera profesionalen nitxo modura aurkeztu zuten.

Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzaren, Kantabriako Unibertsitateko Ingurumen-hidraulikako Institutuaren, Basque Centre for Climate Change (BC3) zentroaren eta Bizkaia eta Aranako Industria-ingeniarrien Elkargoaren laguntzarekin antolatu zuten jardunaldia.

Jardunaldi horretatik, hiru lan-ildo sortu ziren:

1. Lan-talde iraunkor bat eratzea, GJHekin eta 2030 Agendarekin zerikusia duten alderdi guztiak landuko dituzten 8 ingeniari osatutakoa.
2. Ingeniarientzako Klima-aldaketarekin lotutako tresna eta metodologiaren inguruko prestakuntza-ildo oso bat sortzea, klima-aldaketaren eraginak arintzearekin eta, bereziki, klima-aldaketara egokitzearekin lotutako alderdiak aztertuko dituen.
3. Ildo dibulgetzaile bat sortzea, gizaritari klima-aldaketarekin lotutako tokiko arriskuen berri emateko, bai eta ingeniartzak klima-aldaketara egokitzeko bete behar duen eginkizunaren berri ere.



BENETAKO KASUA
13. GJH

KLIMA 2050 LIFE proiektu integratua
IHOBE



Ihobe erakunde publiko, eredugarri eta berritzailea da, Euskadin ingurumenaren hobekuntza bultzatzen duena, herri administrazioekin, enprekin eta herritarrekin lankidetzan. Ekintza klimatikoa da Ihoberen lehentasunezko jarduketa-esparrua.

2015az geroztik, klima-aldaketaren aurreko epe luzerako estrategia bat du Euskadik, EAEko Klima-aldaketako Estrategia –KLIMA 2050–, helburu hauek planteatzen dituena:

- Berotegi-Efektuko Gasen emisioak murriztea
- lurraldearen egokitzapena, hau da, euskal lurraldearen klima-aldaketarekiko erresilientzia ziurtatzea.

eta klima-aldaketaren ondorengo ondorioak nabarmentzen dira Euskadin:


- itsaso-maila igoetzea, kostaldeko ekosistemei eta udalerriei eragiten diena
- aldaketak euri-sisteman: euri arineko egun gutxiago eta euri-jasa handiko egun gehiago,
- tenperaturen igoera progresiboa

[URBAN KLIMA 2050](#) KLIMA 2050 estrategia hiri-ingurunean hedatzeko estrategia, Europar Batasunak finantzatu du % 52an, klima-aldaketa arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko Proiektuen Arloaren barruan. 19,8 milioi euroko zuzeneko inbertsioa du, 1.129,41 kilometro koadrori eta 933.009 laguni eragiten dio, eta 625 milioi euro baino gehiago mobilizatuko du iraungo duen sei urteetab (2019ko irailak-2025eko abendua).

Ihobek zuzendu du proiektua, eta 20 bazkide baino gehiagorekin batera diseinatu du: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin, Portu Zuzendaritzarekin, Urdaibaiko Biosfera Erretserbarekin, URA agentziarekin, EEE erakundearekin, Naturklimarekin eta Euskalmetekin, EAEko hiru foru aldundiekin, hiru hiriburuekin, Bermeo, Bakio, Gernika eta Zarauzko Udalekin, BC3, Azti, Neiker, Tecnalia eta Tecnumekin batera.

Proiektuaren barruan, ekintza klimatikoari dagokion beste plangintza bat egingo da, lurralde-antolamenduaren, osasunaren, energiaren eta uraren alorreko politika sektorialetan klima-aldaketaren aldagaia sartuko da, eta Euskadin klima-aldaketarekin lotutako datuak eta informazio guztia koordinatzeko zentro bat sortuko da.

Kostaldea, hiri-ingurunea eta hiriaren inguruko eremua, eta ibai-arroak. 40 ekintza baino gehiago egitea aurreikusten da; hala nola: ur-bazterrak birnaturalizatzea, hiri-padurak sortzea, kostaldeko zonak monitorizatzea, dunak berreskuratzea, hiri-inguruneetarako soluzio naturalak, mugikortasun jasangarria sustatzeko azpiegiturak eta iturri berriztagarriak ezartzea, besteak beste.



Ozeanoak, itsasoak era itsasoko baliabideak kontserbatzea eta modu jasangarrian erabiltzea, garapena jasangarria izan dadin

1 HELMUGA KOMUN


14.1

3 HELMUGA SEKTORIAL

14.2 | 14.4 | 14.a

* Beste HELMUGA batzuekiko lotura

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	*
<p>14.1. Itsasoaren kutsadura prebenitzea eta murriztea, batez ere lurreko jarduerak sortutakoa.</p>	<p>Era guztietako erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko irizpideak aplikatuz, hondakinen sorkuntzari eusten zaiola ziurtatuz, eta hondakinok ubide, ibai, ibai-bide, estolda eta, azkenean, itsasoan amaitzea saihestuz.</p>	<p>12.5 eta 12.b HELMUGAK</p>
<p> 14.2. Itsasoko eta itsasertzeko ekosistemak modu jasangarrian kudeatzea eta babestea, efektu kaltegarri garrantzitsuak saihesteko, eta horiek berreskuratzeko neurriak hartzea, ozeanoen osasuna eta produktibitatea lehengoratzeko helburuz.</p>	<p>Itsasoko ekosistemen gain eskumenak dituzten administrazioek beren ekarpena egin diezaiokete Helmuga honi, legeak eginez eta, erakunde pribatuekin batera –hirugarren sektorea barne–, planak, politikak eta lankidetzak ezarriz, ozeanoen eta haien baliabideen kontserbazioa eta erabilera jasangarria hobetzeko, gobernantza eraginkorra bermatuz.</p> <p>Arrantzaren industriak ere egin dezake bere ekarpena, hobetzeko politikak eta planak ezarriz eta, haien jardueren kudeaketa arduratsu eta jasangarri baten bitartez, itsasoko errekurtoak zaintzeko konpromiso publikoa hartuz, inpaktu negatiboak sortzea saihesteko.</p> <p>Elkarteek ere lagun dezakete, sentsibilizazioko, jakintza sortzeko, ikerkuntzako eta zabalkundeko ekimenen bitartez, bai eta industriarekin eta administrazioekin aliantzak eginez ere, ebaluazioko eta hobekuntzako planak gauza ditzaten, ozeanoen eta haien baliabideen jasangarritasuna bermatzea helburu dutenak.</p>	<p>8.4 HELMUGA</p> <p>13.1 HELMUGA</p>

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
<p>14.4. Arrantza-ustiakuntza eraginkortasunez arautzea, eta gehiegizko arrantzarekin, legez kanpoko arrantzarekin, deklaratu eta arautu gabekoarekin eta arrantza-jardunbide suntsitzaileekin amaitzea, eta oinarri zientifikodun kudeaketa-planak aplikatzea, ahalik eta lasterren arrain-populazioak lehengoratzeko helburuz, haien ezaugarri biologikoen arabera ahalik eta etekinik jasangarriena lortzeko gutxieneko mailak lortuz.</p>	<p>Itsasoko ekosistemen gain eskumenak dituzten administrazioek beren ekarpena egin diezaioke Helmuğa honi, legez eginez eta, erakunde pribatuekin batera –hurgarren sektorea barne–, planak, politikak eta lankidetzak ezarriz, ozeanoen eta haien baliabideen kontserbazioa eta erabilera jasangarria hobetzeko, gobernantza eraginkorra bermatuz.</p> <p>Industriak ere egin dezake bere ekarpena, bere kudeaketa-sistemak hobetuz, bere jardunbideak hobetzeko konpromiso publikoak hartuz, jakintza zientifikoan oinarrituta eta jasangarritasunaren arloan erreferentziazkoak diren erakundeen eta nazioarteko organismoen gomendioei jarraiki, itsasoan lan egiten duten pertsonak barne.</p> <p>Elkarteek ere lagun dezakete, sentsibilizazioko, jakintza sortzeko, ikerkuntzako eta zabalkundeko ekimenen bitartez, bai eta industriarekin eta administrazioekin aliantzak eginez ere, ebaluazioko eta hobekuntzako planak gauza ditzaten, ozeanoen eta haien baliabideen jasangarritasuna bermatzea helburu dutenak.</p>	<p>8.5 eta 8.8 HELMUGAK</p>
<p>14.a. Ozeanoekin eta itsasoekin lotutako ezagupen zientifikoak eta ikerkuntza areagotzea.</p>	<p>Zentro teknologikoen, unibertsitateen eta elkarteek lagun dezakete Helmuğa honetan, itsasoekin eta ozeanoekin lotutako berariatzko ikerkuntza-programen bitartez, industriari zein administrazioei politikak ezartzeko erreferentziazko balioko dietenak.</p>	<p>9.5 HELMUGA</p>



BENETAKO KASUA 14.2 HELMUGA



Bolton Food – Grupo Conservas Garavilla arrain-kontserbatan espezializatutako enpresa da, eta bere marka nagusiak, ISABEL eta CUCA, 23 herrialdeetan daude. Bere negozio-eredua modu bertikalean integratuta ditu ekoizpen-prozesuaren fase guztiak eta horri esker, erabateko kontrol du prozesu giltzarrietan: hornikuntzan, eraldaketan eta banaketan, itsasotik mahairaino.

Ozeanoekiko eta haien baliabideekiko konpromiso jasangarria Bolton Food – Grupo Conservas Garavilla

Bolton Food

Bolton Food – Grupo Conservas Garavilla taldearen konpromisoa erabatekoa da gardentasunaren eta hegaluzearen legez kontrako arrantzaren aurkako borrokan, eta horrelaxe aitortzen da bere jasangarritasun-politikan eta gizarte-erantzukizun korporatiboaren. Konpromiso horren erakusgarri da “Era arduratsuan Arrantzatutako Atuna” (UNE 195006) araua bultzatu izana eta horren bidez bere lau atunketariak ziurtatuta izatea. Ekimen honek munduan parerik ez duen eskakizun-maila ezartzen du itsasoko kontrola eta segurtasuna, laneko eskubideen eta eskubide sozialen defentsa (LANE erakundearen itsasoko langileen inguruko 188 Hitzarmenaren pean) eta ingurumen-jardunbide egokiak bermatzeko.

Ziurtapen hori mugarri berri eta garrantzitsua izan da mundu mailan legez kontrako arrantzaren eta lan-baldintza

neurrigabeen aurkako borrokan, eta bere helburura da bermatzea, batetik, arrantza-jardueraren erabateko kontrola eta, bestetik, atunketariak itsasora ateratzeko baldintza onenetan daudela. Konpromiso horren ondorioz, “Era arduratsuan Arrantzatutako Atuna-AENOR Conform” zigilua sortu zen 2019ko ekainean ISABEL hegaluzearen gaman, kontsumoko amaierako produktuaren jatorrizko trazabilitate arduratsu eta jasangarria bermatzen duena, hirugarren eragile independente batek ziurtatuta. 2020an, ISABEL izango da bere ekoizpen guztia APR-AENOR Conform bitartez ziurtatuta izango duen lehen marka mundu osoan.

Horrez gain, enpresaren itsasontziak Arrantza Hobetzeko proiektuaren barruan daude –FIP ingelesezko siglak– jarduten duten ozeanoetan (Ekialdeko eta Mendebaldeko Ozeano Barea); OPACAP elkarteak (Izozkailudun Atunketari Handien Ekoizle Batuen Erakundea) zuzentzen du proiektu hori WWFren kolaborazioarekin. FIP horiek mundu mailan atunaren arrantza hobetzeko ekimenik osoenak dira eta Marine Stewardship Council –MSC– erakundearen ingurumen-ziurtapen prozesuan sartu dira berriki. Hiru printzipio ebaluatzen ditu ziurtapen horrek: stocken osasuna, jardunbide egokiak eta gobernantzako sistemak.

Konpainiak WWF-k bultzatutako transparentsea.org plataforman erregistratu ditu bere itsasontzi guztiak; webgune hori arrantza-enpresen datuen analisi-sare batean oinarrituta dago, eta bere helburua da gehiegizko, legez kontrako, eta arautu eta zenbatu gabeko arrantza geldiaraztea, arrantza-operazio guztiak gardenak izan daitezen. Itsasontziak non ari diren eta non arrantzatzen duten erakusten du, AIS eta VMS datuak partekatu egiten ditu eta, eta era horretan babestutako itsaso-eremuen eta arrantzatu ezin den eremuen mugak errespetatzen dituztela bermatzen da.

Bestalde, Seafood Sustainability Foundation (ISSF) fundazioko kide da enpresa; %100 betetzen ditu haren kontserbazio-neurriak –MRAG-Americas erakundeak egiten du auditoretza urtero–, eta erosketako transakzio komertzialak Proactive Vessel Register (PVR) erregistroan erregistratutako inguraketa-ontzi handiekin bakarrik egiteko betebeharra hartzen du bere gain. Itsasontzien PVR erregistroa kanpoko erakunde batek egiaztatzen du urtero, beren jarduera jasangarria eta arduratsua bermatzeko.

Ekimen eta proiektu horiek ozeanoak zaintzeko konpromisoari dagozkio, eta jarduera modu arduratsuan kudeatzen den bermea dira. Horri guztiari esker, atunen %70 iturri jasangarri edo arduratsuetatik eskuratzea lortu da 2019an: MSC-k ziurtatutako arrantza-enpresetatik, FIP sendoetatik (beti ere, kanpoko erakundeek egiaztatuak direnak). WWF erakundearekin hitzartutako ibilbide-orriak horixe ezartzen eta guztiaren azken helburua zera da: 2024an, atunaren %100 iturri jasangarrietatik eskuratzea.



Lehorreko bizitza babestea, berroneratzea eta modu jasangarrian erabil dadin sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea

1 HELMUGA KOMUN


15.9

5 HELMUGA SEKTORIAL

15.1 | 15.3 | 15.4 | 15.5 | 15.8

* Beste HELMUGA batzuekiko lotura

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	*
15.1. Lurreko eta barnealdeko ur gezen ekosistemak kontserbatzea, berroneratzea eta modu jasangarrian erabiltzea, batez ere basoak, hezeguneak, mendiak eta eremu elkorak.	Biodibertsitatearen alorrean eskumenak dituzten administrazioek lagun dezakete Helmuga honetan, babes- eta kontserbazio-figurak bultzatzeko prozeduren bitartez eta, ondoren, horiek kudeatuz.	6.6 HELMUGA
15.3. Lur eta lurzoru kutsatuak berroneratzea.	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoru gisa katalogatutako jabe diren administrazioek eta erakundeek lagun dezakete Helmuga honetan, kutsatutako lurzoruak berroneratu eta erabilera berriak emanez.	3.9 HELMUGA
15.4. Mendi-ekosistemak kontserbatzea, haien dibertsitate biologikoa barne, garapen jasangarrirako funtsezko onurak ematen duten gaitasuna hobetzeko helburuz.	Biodibertsitatearen alorrean eskumenak dituzten administrazioek lagun dezakete Helmuga honetan, babes- eta kontserbazio-figurak bultzatzeko prozeduren eta kudeaketa integraleko planen bitartez.	-
15.5. Natura-habitaten degradazioa murriztea, biodibertsitate-galera geldiaraztea, eta mehatxupear dauden espezieak babestea baita haien desagertzea saihestea ere.	Biodibertsitatearen alorrean eskumenak dituzten administrazioek lagun dezakete Helmuga honetan, legeriaren, sentsibilizazioaren, boluntarioritza-programen edo herritarren zientzia-sarea bezalako ekimenen bitartez, natura-habitaten degradazioa saihestea ziurtatzeko, baita hiri-inguruneetan ere.	-

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
<p>15.8. Espezie exotiko inbaditzaileak sar daitezen prebenitzea, eta nabarmen murriztea espezie horiek lurreko eta uretako ekosistemetan dituzten eragin kaltegarriak, baita lehentasunezko espezieak kontrolatzea edo desagerraraztea ere.</p>	<p>Biodibertsitatearen alorrean eskumenak dituzten administrazioek egin diezaioke beren ekarpena Helmuga honi, aduanak kontrolatzeaz arduratzen diren erakundeekin informazio-kanpainak eginez, espezie inbaditzaileen hazkundera geldiarazteko programak ezarriz, bai eta ikerkuntzaren, sentsibilizazioaren eta boluntariotza-programen bitartez ere.</p>	-
<p>15.9. Ekosistemen eta biodibertsitatearen eta horien zerbitzuen balioak plangintzan txertatzea.</p>	<p>Era guztietako erakundeek egin dezakete beren ekarpena Helmuga honi dagokionez, haien inguruko ekosistemen balioa identifikatuz, ezagutuz, babestuz eta horren zabalkundera eginez –ekosistemok txikiak izan arren–, eta eskaintzen dituzten zerbitzuak eta balioa ezagutaraziz.</p>	-



BENETAKO KASUA 15.9 HELMUGA



Euskal Kostaldeko Geoparkea Kantauri itsasoaren eta euskal mendien artean ahokatuta dagoen lurralde txiki bat da, Deba, Mutriku eta Zumaia udalerriek osatzen dutena. 2010. urteaz geroztik, Geoparkeen Europako eta Munduko Sareko kide da. 2015eko azaroan, Munduko Geoparke izendatu zuen UNESCOk; izendapen horrek aparteko balioa duten lekuen eta paisaia geologikoen garrantzia goraipatzen du.

GEOPARKEA, geo-turismoaren motor gisa Euskal Kostaldeko Munduko Geoparkea, Unesco

Geoparkearen berezitasunetako bat da jendea bizi den lurraldea dela, **ondare geologiko garrantzitsua** duena, natura- eta kultura-ondareari dagozkion beste elementu batzuez gain. Geokontserbazioan eta garapen jasangarrian oinarritutako kudeaketa-estrategia aplikatzen da, eta bere komunitatean finkatuta dago.

Ekintza-ildo nagusienetako bat ondare geologikoari balioa ematean oinarritzen da, eta hori GEOTURISMOAREN garapenaren bitartez egiten da. **Turismo jasangarria** sustatzeaz gain, bestelako ekintzak ere sustatzen ditu Geoparkeak, hala nola **ikerkuntza bultzatzen** du unibertsitateekin hitzarmenak eginda, **jakintza sortzen** du geoparkean bertan garatzen diren azterlanen bitartez, eta kultura eta euskara sustatzen ditu, [Euskararen enigma](#) bezalako ekimenen bitartez.

Hezkuntza da beste oinarri garrantzitsuetako bat, eta Geoeskolak programa didaktikoaren bitartez garatzen da. Hezkuntza Planaren eta GJHen esparruan diseinatu da programa hori. Helburua da ikasleen artean Geoparkea ezagutaraztea, metodologia berritzaileak erabilia.



Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan

3 HELMUGA KOMUN

.....

16.5 | 16.6 | 16.7

1 HELMUGA SEKTORIAL

.....

16.2

* Beste HELMUGA batzuekiko lotura

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	*
16.2. Haurren aurkako tratu txarrak, esplotazioa, indarkeria modu guztiak eta tortura desagerraraztea.	Haurtzaroarekin zerikusia duten erakundeek –hezkuntzakoak, gizarte zerbitzuetakoak edo lehen mailako arretako zerbitzuak izan– lagun dezakete Helmuga honetan, adingabeen aurkako gehiegikeriak detektatzeko eta prebenitzeko protokoloen bitartez.	-
16.5. Ustelkeria eta eroskeria modu guztiak murriztea.	Era guztietako erakundeek egin diezaiokete beren ekarpena Helmuga honi, herri administrazioek batez ere, eroskeria-jardunbideak prebenitzeko erreferentziatzeko sistemak ezarriz, eta kode etikoak eta jarraipen-sistema garden eta fidagarriak prestatuz. Komunikabideek ere lagun dezakete, eroskeria eta ustelkeria kasuak detektatzen direnean egiazkotasunez informatuz.	-
16.6. Kontuen berri emango duten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea, maila guztietan.	Era guztietako erakundeek egin dezakete beren ekarpena, gardentasun-sistemak ezarriz, eta behar bezala berrikusi eta baliozkotutako adierazleak eta memoriak argitaratuz.	12.6 HELMUGA 17.19 HELMUGA
16.7. Maila guztietan erabaki inklusibo, parte-hartzaile eta ordezkagarriak hartzen direla bermatzea.	Era guztietako erakundeek egin dezakete beren ekarpena Helmuga honi dagokionez, erabaki beharreko alderdiekin koherentzian, pertsona guztien erabateko eta benetako parte-hartzea eta, ondoren, erabaki horien ezarpenean, pertsonen inplikazioa ziurtatuko duten mekanismoak txertatuz.	5.5 HELMUGA



BENETAKO KASUA 16.6 HELMUGA

Jardueraren ingurumen-inpaktu positibo garbiak kalkulatzeko tresna bat garatzea Tecnalia Research and Innovation



TECNALIA RESEARCH AND INNOVATION European

erreferente den ikerkuntza eta garapen teknologikoko zentroa da, 30 nazionalitatetako 1.400 aditu dituena, teknologia BPG bihurtzera bideratuta, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, enpresetan negozio-aukerak sortuz. Hauexek dira Tecnaliaren jardun-esparru nagusiak: eraldaketa digitala, fabrikazio aurreratua, trantsizio energetikoa, mugikortasun jasagarria, hiri-ekosistema eta osasuna.

I+G-eko jardueren ingurumen-inpaktu positiboak komunikatzea: Ikuspegi korporatiboa.

Metodologia:

Ikuspegi esperimentalala duen tresna bat garatu du Tecnaliak, I+G+b-ko jardueren “**ingurumen-inpaktu positibo garbiak**” kalkulatzeko. Bizitza-zikloaren pentsamenduan oinarritutako metodoa da, eta LCA metodoaren estandarrak betetzen ditu. Hainbat kategoriatako inpaktuak kalkulaten dira, inpaktua ebaluatzeko ReCiPe metodoa erabilia.

Metodologiaren helburua da teknologia berri bat garatzeak **ingurumenean sortu duen onura** zenbatestea, proiektua garatu bitartean izandako ingurumenarekiko inpaktuak kontuan izanda, baita teknologia horren bizitza erabilgarrian zehar gerta daitezkeenak eta, azkenik, bizitza erabilgarria amaitzeagatik sortutakoak ere.

I+G-eko jardueren ingurumen-inpaktu positibo garbiak proiektu mailan kalkulaten dira lehenik eta behin, produktua edo teknologia garatzeko fasean izandako ingurumen-inpaktu negatiboak kenduta produktua merkaturatu edo laguntza-teknologia areagotzen denetik zenbatesten diren inpaktu positiboak. Merkaturan barneratzea teknologiaren zabalkundeko agertoki alternatiboen arabera modelatzen da.

Produktu eta teknologia berrien ingurumen-efektu positiboak berri ematen duten ingurumen-adierazle multzo bat eskaintzen du tresnak. Interfaze grafiko batek kanpo-komunikazioetarako grafikoak eta diagramak ematen ditu.



BENETAKO KASUA 16.6 HELMUGA

Ekonomia Jasangarritako komunitatea Ekonomisten Euskal Elkargoa



ekonomistak
Euskal Elkargoa - Colegio Vasco

Ekonomisten Euskal Elkargoa
ekonomisten Erakunde profesionala da, Euskadin ekonomista lanbidea antolatu, ordezkatu, defendatu eta sustatzeaz arduratzen dena.

Elkargoaren Jasangarritasun Komunitatea bultzatu du, eta gizarte osoa arlo ekonomiko-finantzarioan, sozialean eta ingurumenaren arloan hezten laguntzeko lan egiten du komunitate horrek. Helburu bikoitza du ekimenak: euskal enpresa-sarea kudeatzeko behar adina tresna eskaintzea, eta gizartearen garapenean eragina duten erabaki ekonomiko-finantzarioak, sozialak eta ingurumenari dagozkionak baloratzeko nahikoa ezagupen izatea.

Jasangarritasun Komunitateak gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza teknikoa, profesionala eta goi-mailakoa jasotzeko aukera berdina izan ditzaten lortu nahi du, Ekonomia Jasangarriari buruzko mintegien, ikastaroen eta tailerren bitartez.

Horretarako, lan handia egiten du, arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak eratzea sustatzeko, bere kideen eta duen harreman-sare sozialaren zein enpresa munduko sarearen esperientziaz baliatuz. Euskadiko mugarik gabeko Ekonomialariek lankidetzan jarduten du ekimen honetan.

Beraz, helburu nagusia da maila guztietan lortzea erakunde eraginkor eta gardenak sortzea, kontuak emango dituztenak Triple Bottom Line delakoaren ikuspegitik, hau da, ikuspegi ekonomikotik, sozialetik eta ingurumenaren ikuspegitik.



Ezarpen-baliabideak indartzea, eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea

4 HELMUGA KOMUN


17.2 | 17.16 | 17.17 | 17.19

1 HELMUGA SEKTORIAL

17.9

* Beste HELMUGA batzuekiko lotura

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	*
17.2. %0,7 garapen bidean dauden herrialdeak garatzeko laguntza ofizialera bideratzea.	Erakundearen barne-mailan, Helmuga honi lagun diezaiokete, hainbat ekimen sustatuz, ordainsarien bitartez, langileek % 0,7ko ekarpena egin dezaten. Herri administrazioen kasuan, berriz, % 0,7 nazioarteko lankidetzara bideratuz.	1.1 HELMUGA
17.9. Garapen bidean dauden herrialdeetan gaitasun eraginkorrek eta zehatzak sortzeko jarduerak egiteko nazioarteko laguntza areagotzea.	Garapen bidean dauden herrialdeekin harremanak dituzten enpresek eta erakundeek Helmuga honetan lagun dezakete, xedeko herrialdeetan gaitasuna sortzeko ekimenak sustatuz, boluntariotza korporatiboko programen edo nazioarteko lankidetzaren bitartez. Unibertsitate eta ikerkuntza-zentroetan, jakintzaren transferentzia sustatuz, programa edo aliantzen bitartez.	-
17.16. Askotariko interesdunen arteko aliantzak sortzea, ezagupenak mobilizatu eta elkartrukatu, eta gaitasuna, teknologia eta finantza-baliabideak sortuko dituztenak, Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko helburuz.	Sektore publikoko zein pribatuko enpresek Helmuga honetan lagun dezakete, GJHeKin zerikusia duen jakintza-elkartrukea, espezializazioa edo gaitasun-sorrera indartuko duten sare, aliantza edo lantaldeetan parte hartuta.	-

HELMUGA	NOLA LAGUNDU HELMUGA HORI LORTZEN?	 *
17.17. Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilaren arloan aliantzak eratzea.	Sektore publikoko zein pribatuko enpresek egin dezakete beren ekarpena, garapen jasangarriarekin eta GJHekin lotutako aliantza publiko-publiko edo publiko-pribatuetan parte hartuta edo horietako kide izanda.	-
17.19. Garapen jasangarriaren arloan egindako aurrerapenak neurtzeko aukera emango duten adierazleak prestatzea.	Sektore guztiek, publikoek zein pribatuek, egin diezaioke beren ekarpena Helmuga honi, txostenak argitaratuta, GJHak lortzeko ekarpenaren jarraipena egiteko aukera ematen duten adierazleekin.	12.6 HELMUGA 16.6 HELMUGA

Oharra: Erakunde batzuek, 18. helburua gehitzen diete Garapen Jasangarriko 17 Helburuei: Hizkuntza- eta Kultura-aniztasuna.



BENETAKO KASUA 17.16 HELMUGA

aclima
Basque Environment Cluster



[Aclima, Basque Environment klusterrak ON THE ROAD argitaratu du; agiri horretan, Garapen Jasangarriko Helburuekiko dituen konpromisoak partekatzen eta gizarteratzen ditu. Beste urrats bat egin du Aclimak, eta bere ibilbide-orria aurkeztu du, bere helburu estrategikoekin zuzeneko harremana duten Helmugak eta konpromisoak jasotzen dituen.](#)

ON THE ROAD_Aclima klusterraren konpromisoa GJHekin

Aclima, Basque Environmental Cluster

Garapen Jasangarriko Helburuetarako eta 2030 Agendarako lehenengo hurbilketa bat egin ondoren, ikusi zuten ingurumen-sektorea GJH gehienekin dagoela nolabait lotuta. Beraz, hasierako analisi bat egin dute, beren ekarpena hiru mailatan bereiziz:

Foku Nagusia, Zuzeneko Ekarpina eta Zeharkako Ekarpina.

Segmentazio horretan oinarrituta, lehenengo biak landu dituzte.

FOKU NAGUSIA, klusterraren misioarekin oso lotuta dauden lehentasunezko GJH hauexek dira:

8. GJH: LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA: Aclimaren kasuan, kalitatezko enplegu berdea sustatzea, ingurumen-sektorean ekintzailatza eta nazioartekotzea bultzatzea, eta bazkideen proiektuak finantzatzeko bideak bilatzea, besteak beste.

9. GJH: INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURAK:

GJH horren barruan sartuko litzateke bere bazkideen artean berrikuntza sustatzeko egiten duen lanarekin zerikusia duen guztiak, sektoreko proiektu estrategikoak, etab.

17. GJH: HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZAK: Klusterrak berezko ezaugarritzat du aliantzak eta lankidetzan bilatzea, GJH hau da erakundearen muina: enpresen arteko lankidetzak, sektoreen artekoa, arlo publikoaren eta pribatuaren artekoa...

Bigarren multzoa sektore gisa, beren jarduerarekin, **ZUZENKO EKARPENA** egiten dieten GJHei dagokie, eta bazkide diren enprekin egindako proiektu eta jarduerekin lotuta daude (6., 11., 12. eta 13. GJH).

ON THE ROAD (Errepidean), sektore gisa Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko gida eta inspirazioa, eta gainerako sektoreei egiten dieten gonbidapena, beren **"GREEN ROAD"** errepidean bidaia dezaten.

[Ikus bideoa](#) | [Agiria](#)



BENETAKO KASUA 17.16 HELMUGA

Elkargoen efektu biderkatzailea BASQUEPRO



Euskadiko Elkargo profesionalak biltzen ditu BASQUEPRO sareak, eta hiru ildotan lan egiten du: Basquepro Sarea: Profesionaltasun foroa; Basquepro Behatokia: Profesionaltasunaren behatokia; eta Basquepro elkargoak: Elkargo Profesionalen sarea.

Euskadiko Elkargo profesionalak biltzen ditu BASQUEPRO sareak, eta hiru ildotan lan egiten du: Basquepro Sarea: Profesionaltasun foroa; Basquepro Behatokia: Profesionaltasunaren behatokia; eta Basquepro elkargoak: Elkargo Profesionalen sarea.

Azkeneko ildo horretatik –**Basquepro elkargoak: Elkargo Profesionalen Sarea**–, Euskadiko Elkargo Profesionalak 2030 Agendara hurbil daitezen bultzatzen ari da, kolektibo profesional ezberdinek duten eginkizuna eta kolektibo horiek Garapen Jasangarriko Helburuekin duten erlazioa definitzeko eta bultzatzeko helburuz. Besteak beste, [Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargo Ofizialak, Euskadi, Burgos eta Errioxako Kimikarien eta Kimika-ingeniarien Elkargoak](#) eta [Ekonomisten Euskal Elkargoak](#) hartu dute parte EUSKADI 2030 GUNEA Talde Pilotuan, taldeari Elkargo Profesionalen ahotsa ekarriz eta, aldi berean, Sarea osatzen duten hainbat elkargori taldean egiten ari diren aurrerapenen berri emanez.

Orain arte aipatutako elkargoez gain, honako hauek ere hartu dute parte lan- eta hausnarketa-taldean: Bizkaiko Industria-ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialak, Fisikarien Elkargo Ofizialaren Euskadiko ordezkariak, Euskadiko Biologoien Elkargo Ofizialak, Bizkaiko Abokatuen Elkargoak, Bizkaiko Industria-ingeniarien Elkargo Ofizialak, Bizkaiko Seguru-bitartekarien Elkargoak, Lan-harremanetako Gradudunen Elkargo Ofizialak, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak, Aragoi, Nafarroa eta Euskadiko Ingeniari Agronomoen Elkargo Ofizialak, Euskadiko Informatika-ingeniarien Elkargo Ofizialak, Bizkaiko Psikologoien Elkargo Ofizialak eta Euskadiko Geologoien Elkargo Ofizialak.


EUSKADI 2030 GUNEA lan-taldeak egin dituen jardueren artean, egin dituzten 10 jardunbide egoki bildu dira elkargo profesionalen artean, eta laster egingo da horien zabalkundea.

Inkesta bat ere egin da elkargo profesionalen artean, elkargoarentzako edo lanbidearentzako zein Basquepro Elkargoak sarearentzako Garapen Jasangarriko Helburuekin lotutako Helmugarik garrantzitsuenak zein diren jakiteko.

Milaka profesional biltzen dutenez eta haiek, aldi berean, hamarka milaka bezero zerbitzatzen dutenez, elkargoek duten faktore biderkatzailea aprobetxatzeko lanean jarraitzen dute. Hain zuzen ere, BasquePro sarean sortutako lan-taldearen helburu nagusienetakoa da sareko erakunde guztietan Gida praktikoa hau aplikatzea, bai eta elkargoetako kideek (50.000 baino gehiago Euskadin) eta profesional horiek beren zerbitzuak ematen dituzten erakundeetan ere.

5.

Nola ekin 2030 Agenda ezartzeari



Lehen aldia denez era guztietako erakundeei eskatzen zaiena Helburu komun batzuk ezar ditzaten, 2030 Agenda malgua eta moldagarria izan behar da, ez bakarrik haren irismenari dagokionez, baizik eta baita ezartzeko moduari dagokionez ere.

Erakundeek 2030 Agendari ekiteko hainbat modu daude eta, oro har, nahiko ohikoa da modu progresiboan ezartzen joatea.

2030 Agendari ekiteko hainbat ikuspegi edo modu egon daitekeen arren, horietako hiru planteatzen ditu Gida honek: **PLAN ESTRATEGIKOA**, erakundearen **URTEKO MEMORIA**, edo erakundearen ezarritako **KUDEAKETA-SISTEMA(K)**.



Prozesuaren progresibotasunari dagokionez, **hiru fasetan** oinarritutako eredu bat aurkeztuko dugu jarraian, eman beharreko urratsak azaltzen dituen, prozesuari nondik heltzen zaion.





1. FASEA

**ERAKUNDEAK
2030 AGENDAN
DUEN EGINKIZUNA
AZTERTZEA**



2. FASEA

**ERAKUNDEAREN
JARDUERA
GJHEKIN
LERROKATZEA**



3. FASEA

**2030 AGENDA
ERAKUNDEAREN
ARDATZ NAGUSI
GISA TXERTATZEA**

PLAN ESTRATEGIKOA



1. URRATSA

Erakundearen jarduera mapeatzea, GJHei dagokienez



2. URRATSA

Aldez aurretik dagoen plan estrategikoa GJHein lerrokatzea

3. URRATSA

GJHei egiten zaien ekarpenaren jarraipena egiteko aginte-koadroaren adierazleak identifikatzea



4. URRATSA

Erakundearen estrategiak GJHei egiten dien ekarpena jasoko duen txostena eta jarraipen-plana prestatzea

5. URRATSA

Erakundearen estrategia 2030 Agendaren egituraren oinarrituta prestatzea

URTEKO MEMORIA



1. URRATSA

Erakundearen jarduera mapeatzea, GJHei dagokienez



2. URRATSA


Memorian erakundeak GJHei egiten dien ekarpenari buruzko aipamenak txertatzea



3. URRATSA

Memoria 2030 Agendaren arabera egituratzea

KUDEAKETA- SISTEMA(K)



1. URRATSA

Erakundearen jarduera mapeatzea, GJHei dagokienez



2. URRATSA

Sistemetan GJHei buruzko erreferentziak sartzea



3. URRATSA

Sistemetan Erreferentziazko Helmuga guztiak eta horien jarraipena egiteko Adierazleak sartzeasu segumiento



1. FASEA

Erakundeak 2030 Agendan duen eginkizuna aztertzea

Plan Estrategikotik, Urteko Memoriatik edo Kudeaketa-sistemetatik

Fase hau komuna da 2030 Agendari ekiten zaion ikuspegia edozein dela ere, eta **erakundearen jardura GJHei dagokienez mapeatzea** da kontua.

Oinarrizko urratsa da erakundea 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuen testuinguruan kokatzeko.

1. FASEA >



1. URRATSA: ERAKUNDEAREN JARDUERA MAPEATZEA, GHJei DAGOKIENEZ

Funtsean, erakundearentzako **Erreferentziazko Helmugak** identifikatzea da kontua. Normalean, Nazio Batuen Erakundearen Helmugak hartzen dira abiapuntutzat, baina Gida honek euskal testuingurura egokitutako 84 Helmugak eskaintzen dizkie euskal erakundeei, haientzako erreferentziazko Helmuga gisa identifikatu direnak. (Ikus 3. eta 4. kapituluak)

Mapeatze-lana egiterakoan, honako bereizketa egitea gomendatzen da:

JARDUERA	BARNE-ANTOLAMENDUA
Erakundearen izateko arrazoi nagusia, eta bere produktuak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko prozesuak hartzen dira kontuan hemen.	Hemen, pertsonaz osatutako edozein erakunde motak dituen alderdi komunak hartzen dira kontuan, erakundearen barne-politikekin zerikusia dutenak.

Zeregin honetarako baliabide modura, honako hauek eskaintzen ditu Gidak:

- 4. kapitulua. Euskal erakundeentzako

erreferentziazko Helmugak. Garapen Jasangarriko Helburu bakoitzerako euskal erakunde guztientzako Helmuga komunak aurkituko dira, bai eta erakunde motaren arabera Helmuga batzuk ere, horiek identifikatzeko jarraibideekin eta Helmugak ezartzeko iradokizunekin; eta

-I. Eranskina. Lan hau egiteko euskarri-taula eredu bat eskaintzen du. Taula honen laguntzarekin, erakundearen erreferentziazko Helmugak marka daitezke. Zentzu horretan, gutxienez 28 Helmuga komun identifikatzea gomendatzen da eta, 4. kapituluan eskaintzen diren jarraibideei jarraiki, Helmuga sektorialak, erakunde motaren arabera. Horrez gain, Helmugak erakundearen JARDUERAREKIN edo BARNE-ANTOLAMENDUAREKIN erlaziorik duen adierazteko aukera ematen du, baita dagoeneko erakundeak laguntzen dituen Helmugak eta gaur egun laguntzen ez dituenak baina etorkizunean lagun litzakeenak bereizteko ere (Etorkizunerako erronkak).

URRATS hau emanda, bere erreferentziazko Helmugak izango ditu erakundeak eta, ondorioz, Garapen Jasangarriko zein Helbururi laguntzen dion eta zeini lagun liezaiokeen jakingo du. Helmugei dagokienez, erakundeak laguntzen dituen eta etorkizunean lagun litzakeen Helmugak identifikatuta eta bereizita izango ditu; azken horiek **ETORKIZUNERAKO ERRONKAK** izan litezke, prozesuaren fase aurreratuagoetarako. Gainera, erakundearen **JARDUERA** nagusiarekin edo **BARNE-ANTOLAMENDUAREKIN** lotuta egongo da Helmuga bakoitza.

Kontuan izan beharreko gai garrantzitsu bat da erakunde batek ez duela zertan GJH guztietan lagundu behar. Erakunde motaren eta duen jardueraren arabera, GJH jakin batzuekin lotuta egon ahal izango da 2030 Agendari egiten dion ekarpena.

Gainera, erreferentziazko Helmugak aukeratzerakoan, haien artean dauden erlazioak aztertzea gomendatzen da, erakunde batean antzerako Helburuak izan ditzaketen Helmugak ez bikoizteko, eta erakundearen izaerarekin edo Helmugarekin ondoen datozenak aukeratze aldera.

2. FASEA

Erakundearen jarduera GJHeKin lerrokatzea



Behin erakundearen erreferentziazko Helmugak identifikatu ondoren, eta prozesuari nola ekiten zaion eta aurrez aipatutako ikuspuntuen arabera, hainbat modutan gauzatu ahal izango da fase hau:

Plan Estrategikotik

Erakunde baten Plan Estrategikoa da goi-mailako zuzendaritza eta erabaki-organoak sartzen diren esparrua. Askotan, gainera, erabaki garrantzitsuetan erakunde osoaren edo zati baten parte-hartzea bermatzen du. Etorkizunera begira planteatutako Plan Estrategikoak erreferentziazko esparru egonkor bat ezartzen du ildo estrategikoei dagokienez, urteko kudeaketara jaistea ahalbideratzen duena eta, askotan, jarraipenerako aginte-koadro bat eta emaitzen urteko txostenak egiteko esparru ideala ezartzen duena.

Horregatik, 2030 Agenda Plan Estrategikotik txertatzea izan daiteke agenda hori erakundearen eguneroko jardunean benetan ezartzeko modurik eraginkorrena.

Behin I. URRATSA emanda, bere erreferentziazko Helmugak izango ditu erakundeak eta, ondorioz, Garapen Jasangarriko zein Helbururi laguntzen dion eta zeini lagun liezaiokeen jakingo du. Helmugei dagokienez, erakundeak laguntzen dituen eta etorkizunean lagun litzakeen Helmugak identifikatuta eta bereizita izango ditu; azken horiek ETORKIZUNERAKO ERRONKAK izan litezke, prozesuaren fase aurreratuagoetarako. Gainera, erakundearen JARDUERA nagusiarekin edo BARNE-ANTOLAMENDUAREKIN lotuta egongo da Helmuga bakoitza.

2. FASEA >**2. URRATSA
ALDEZ AURRETIK DAGOEN PLAN
ESTRATEGIKOA GJHein LERROKATZEA**

I. URRATSAREN emaitzetatik abiatuta, Plan Estrategikoa azter daiteke, ekintzen mailan –horixe izan ohi da Planen mailarik zehatzena–, ekintza bakoitzak zein Helmugari edo Helmugei laguntzen dien identifikatzeko.

Gerta daiteke, erakundeak bere eguneroko jardunean Nazio Batuen Helmuga batzuei lagundu arren, horietako batzuk Plan Estrategikoak islatuta ez egotea.

2. FASEA >**3. URRATSA
GJHei EGITEN ZAIEN EKARPENAREN
JARRAIPENA EGITEKO AGINTE-
KOADROAREN ADIERAZLEAK
IDENTIFIKATZEA**

Erakundeak laguntzen dituen Helmugak identifikatu ondoren, kontua da Helmuga zehatzei egiten zaien ekarpena isla dezaketen adierazleak identifikatzea eta aginte-koadrotik ateratzea.

2. FASEA >**4. URRATSA
ERAKUNDEAREN ESTRATEGIAK GJHei
EGITEN DIEN EKARPENAREN JASOKO DUEN
TXOSTENA ETA JARRAIPEN-PLANA
PRESTATZEA**

Plan Estrategikoari aplikatutako 1. FASEAREN ondorioz, erakundeak bere ekarpena egiten dien Garapen Jasangarriko Helburuen arabera egituratutako Txosten bat egin daiteke; zera jaso beharko da, GJH bakoitzeko:

- **Erakundearentzako ERREFERENTZIAZKO HELMUGAK (1. FASEAN egindako mapeatzearen emaitza)**
- **Helmuga horiei eta, beraz, GJHei laguntzen dieten Plan Estrategikoko EKINTZAK edo ILDOAK**
- **GJHei egiten zaien ekarpenaren jarraipena egitea ahalbideratuko duten Aginte-koadroko ADIERAZLEAK aukeratzea**



Erakundearen Urteko Memoriatik

Erakundeak Gizarte-erantzukizuneko urteko Memoriak egiteko alde aurretiko kultura duelako edo Urteko Txostenak edo Memoriak interesdun aldeei irekita eskaintzeko bokazioz egiten dituelako, era horretako memoriatan txertatzea izan daiteke 2030 Agenda erakundeetan sartzeko modu bat. Horretarako, halaber, beharrezkoa izango da GJHen arabera egituratutako adierazleak izatea, eta baliteke beharrezkoa izatea Memoriaren egitura, helburuak eta xede-taldea birplanteatzea ere.

Memoria horiek borondatezkoak izan daitezke, baina enpresa-erakunde askok txostenak egiten hasi behar izan du, informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzko 11/2018 Legeari erantzuteko.

2. FASEA >



2. URRATSA MEMORIAN ERAKUNDEAK GJHei EGITEN DIEN EKARPENARI BURUZKO AIPAMENAK TXERTATZEA

I. URRATSAREN emaitzetatik abiatuta, Urteko Memoria aztertu eta egokitu ahal izango da, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Erakundeak laguntzen dituen Helmugak eta GJH.
- Etorkizuneko erronka gisa identifikatu diren Helmugak, etorkizunera begira horien aldeko konpromiso bat hartu denean
- Helmuga horien aurrerapenaren jarraipena egiteko balio dezaketean Memoriaren adierazleak.

Urteko Memoriak duen egituraren arabera, hura aldatu gabe sartu ahal izango da informazio hori, edo berregin liteke Memoriaren egitura, erakundeak laguntzen dituen edo lagun litzakeen GJHen egiturari jarraiki (ez dago GJH guztiak sartu beharrik).



Erakunde an ezarritako Kudeaketa-sistemetik

Euskadiko erakunde pribatu zein publikoetan oso zabalduta dago askotariko Kudeaketa-sistemak ezartzeko kultura (ingurumena, kalitatea, produktuak...) eta, askotan, sistema horiek egituratzen dute prozesuen antolamendua. Sistema horiek, gainera, haien bilakaeran langileen parte-hartzearen aldeko apustu handiagoa egin dute, bai eta erabakiak hartzeko prozesuen aldekoa ere, zuzendaritza gorenaren inplikazioarekin.

Hona hemen Kudeaketa-sistemen adibide batzuk, eta horiek GJHein duten erlazioa:

Laneko Osasuna eta Segurtasuna Kudeatzeko Sistema (ISO 45001)	GJH: 3 eta 8
EMAS erregelamendua	GJH: 9, 12, 13, 14, 15, 16 eta 17
Ingurumena Kudeatzeko Sistema (ISO 14001)	GJH: 9, 12, 13, 14 eta 15
Eko-diseinurako Kudeaketa-sistema (ISO 14006)	GJH: 9 eta 12
Kalitatea Kudeatzeko Sistema (ISO 9001)	GJH: 8, 9, 12 eta 17
Elikadura-segurtasuna Kudeatzeko Sistema (ISO 22000)	GJH: 2
UNE 195006 Era Arduratsuan Arrantzatutako Atuna	GJH: 8, 12, 14, 16 eta 17
Elikagai-katean trazabilitatea Kudeatzeko Sistema (ISO 22005)	GJH: 12, 16 eta 17
I+G+b-ko politikak garatzeko Kudeaketa-sistema (UNE 166002)	GJH: 9
Energia-eraginkortasuna Kudeatzeko Sistema (ISO 50001)	GJH: 7
Irisgarritasun unibertsala Kudeatzeko Sistema (UNE 170001-2)	GJH: 8 eta 10

Baliteke erakunde batzuek beren Sistema bat edo batzuk ikustea 2030 Agenda haien prozesuetan txertatzeko sarreratzat.


2. FASEA >



2. URRATSA SISTEMETAN GJHei BURUZKO ERREFERENTZIAK SARTZEA

I. URRATSAREN emaitzetatik abiatuta, Kudeaketa-sistema(k) aztertu eta egokitu ahal izango da/dira, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Erakundeak laguntzen dituen Helmugak eta GJH, sistemaren berezko adierazle-sisteman Helmuga horien aurrerapen-mailaren jarraipena egiteko balio dezaketen jardun-adierazleak; beharrezkoa balitz, adierazleetako batzuk berregokituz.
- Etorkizuneko erronka gisa identifikatu diren Helmugak, etorkizunera begira horien aldeko konpromiso bat hartu denean, Sistema hobetzeko urteko planetan sartuta.

3. FASEA:**2030 Agenda erakundearen ardatz nagusi gisa txertatzea**

Erakunde guztiek ez duten arren fase honetara iritsi beharrik, erakunde askok, duten jarduera nagusiaren edo Garapen Jasangarriaren printzipioekin duten konpromiso-mailaren arabera, fase honetara iristea erabakiko dute, Nazio Batuen Erakundeak GJHen bitartez ezarri dituen erronkek markatutako 2030. urtera arteko ibilbide-orria izateko helburuz.

Plan Estrategikotik**3. FASEA >**
**5. URRATSA
ERAKUNDEAREN ESTRATEGIA 2030
AGENDAREN EGITURAN OINARRITUTA
PRESTATZEA**

1. eta 2. FASEETAN, Plan Estrategikoaren eta jardueraren analisia egin beharra dago, GJHen ikuspegiaren pean.

Ondorioz, erakunderako erreferentziazkoak diren Helmugak identifikatuko dira eta, gainera, analisi bat izango du erakundeak, Plan Estrategikoak GJHei nola laguntzen dien aztertuko duena.

Erreferentziazko Helmugen artean, seguruenik egongo dira gaur egun ekiten ez zaien edo Plan Estrategikoan agertzen ez diren batzuk.

Bestalde, fase honetara iritsi arteko aurretiazko urratsak ematea eskatzen duen prozesuan, litekeena da erakundeko hainbat pertsona inplikatu izana.

Fase honi heltzea erabakitzeko, zuzendaritza gorenaren edo erabaki-organoen konpromiso bat egongo da, alderantzizko ariketa egitea eskatzen baitu, hau da, hausnarketa estrategikoa 2030 Agendak erakundeari planteatzen dizkion erronkak kontuan hartuz oinarritzea.

Fase honi ekiteko, 2030 Agenda, GJH eta erreferentziazko Helmugak hartu beharko dira kontuan hausnarketa estrategikoko prozesuan eta, horretarako, erakundearen maila guztiek parte hartu beharko dute eta interesdun alde guztiei entzun beharko zaie, 2030 Agenda erreferentziako esparrutzat hartuko duen Plan Estrategiko bat egiteko helburuz.

Halaber, estrategia hori islatuko duen aginte-koadro bat egin beharko da, strategiaren edo erakundeak GJHei egiten dien ekarpenaren jarraipena egin ahal izateko adierazleak berriro aztertuz edo egokituz.



BENETAKO KASUA 5.2 HELMUGA

Garapen jasangarriaren aldeko 2030 EHUagenda estrategia eta haren jarraipena egiteko adierazleen panela prestatzea Euskal Herriko Unibertsitatea



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizartearen goi-mailako hezkuntza-beharrak betetzeko helburuak dituen unibertsitate publikoa den aldetik, EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen helburua da kalitatezko ikerketak egitea, lankidetzako lanaren bitartez jakintza sortzea eta jakintza hori lurralde-inguruneari eta nazioarteko komunitateari transferitzea. Euskal gizartearen sustraituta eta munduari irekita dagoen unibertsitatea da, hausnarketarako eta pentsamendu kritikorako espazio aske bat eskaintzen du. Bere buruaz egiten duen definizio honek 2030 Agendari erantzukizunezko, exijentziazko eta sormenezko jarrera batekin heltzera behartzen du Unibertsitatea.

Nazio Batuen 2030 Agenda garapen jasangarriaren esparruan bere ibilbide-orri bihurtu da 2030 Agenda, eta Plan Estrategikoan (2018-21) bereganatu zuen agenda hori. Plana onartu ondoren, beste urrats bat ematea erabaki zuen eta, garapen operatibo eta neurgarri batekin, ekimen horri modu zehatzean nola lagun liezaiokeen zehaztua, bere hiru jarduketa-esparruetatik: prestakuntza, ikerkuntza eta gizarteari transferitzea. Parte-hartze prozesu batekin prestatu da plan hau, eta unibertsitate-komunitatea osatzen duten hiru kolektiboetako pertsonak hartu dute parte (irakasle eta ikertzaileek, administrazioko eta zerbitzuetako langileek eta ikasleek), esparru eta unitate oso ezberdinetakoak, komunitate osoa inplikatzeko eta agendari zeharkakotasuna ematea lortzeko helburuz. Honako hauek ekarri ditu prozesuak:

- [Garapen jasangarriaren aldeko 2030 EHUagenda \(2019-2025\)](#); 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko 17 Helburuetatik EHUK bat egin duen 12 Helburuei egiten dien ekarpena jasotzen du, eta 17+1 helburuaren bitartez, hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren helburuari egiten diona; baita osatzen duten plan sektorialak ere (Berdintasunaren kanpua, Gizarteratzearen kanpua eta Planeta kanpua), eta IKD i3 (ikaskuntza x ikerketa x Iraunkortasuna) irakaskuntza-ikaskuntzako bere strategiaren berrirakurketa.
- [Garapen jasangarriaren EHUren adierazleen panelak](#) 2030 EHUagendaren jarraipenaren alderdi teknikoak eta haiek neurtzeko lan-metodologia jasotzen ditu; baita EHU Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeari dagokionez aurkitzen den oinarritzko ildoak ere, 2017/2018 ikasturteko datuei dagokiena.




Erakundearen Urteko Memoriatik

3. FASEA >



3. URRATSA MEMORIA 2030 AGENDAREN ARABERA EGITURATZEA

2. URRATSEAN memorian sartzeko proposatutako informazioari jarraiki, erakunde batek, 2030 Agendari dagokionez maila guztietan duen konpromiso-mailaren eta barneratze-mailaren arabera, urteko memoria GJHen testuinguruan jotzen duen rolaren arabera egituratzea baloratu ahal izango du.



Erakundearen ezarritako Kudeaketa-sistemetatik

3. FASEA >




3. URRATSA SISTEMETAN ERREFERENTZIAZKO HELMUGA GUZTIAK ETA HORIEN JARRAIPENA EGITEKO ADIERAZLEAK SARTZEA

Kudeaketa-sistemek, erakundeak 2030 Agendari dagokionez maila guztietan hartu duen konpromiso- eta barneratze-mailaren arabera, hainbat eskakizun bete behar duten arren, Sistemen arreta erakundeak identifikatutako erreferentziazko Helmugen eta horien jarraipena egin ahal izateko adierazleen bitartez gauzatzen dituen Garapen Jasangarriko Helburuetan jartzea baloratu ahal izango du.

Urteko memoria bat egitea eskatzen duten sistemetan, gainera –horixe da EMAS erregelamenduaren kasua–, hori Urteko Memorian ere islatu ahal izango da.

6.

Nola egin aurrera, behin 2030 Agenda ezarri ondoren




Gida honen helburu nagusia oraindik prozesuari ekin ez dioten erakundeetan 2030 Agenda ezartzeko prozesuan laguntzea den arren, behin 2030 Agenda ezarri ondoren aurrera nola egin ikusteko ideia batzuk planteatzen dira jarraian.

Gida honen hasieran, EUSKADI 2030 GUNEA lantaldearen barruan sortutako galderei erantzuten dieten zortzi argudio planteatu ditugu.

Ildo horretatik, eta behin erakundeak 2030 Agenda ezarri ondoren, ondorengo galderak egiteko une egokia da:

Erakundeak 2030 Agenda ezartzeak...

- 
1 2030 Agendak eskaintzen duen hizkera komunean oinarritutako erlazio berriak ezartzeko aukera eman digu?
- 
2 Aukera berriak eta aurrea hartu beharreko aurreikusi gabeko esparruak ireki dizkigu, gure erakundearen jarduna hobetzeko?
- 
3 Garapen jasangarriaren berezko esparruak –soziala, ingurumenari dagokiona eta ekonomikoa– modu eraginkorrean bateratzeko aukera kontuan hartzea ahalbideratu al digu?
- 
4 Erakundearen posizionamendua hobetu al du?
- 
5 Erakundearen barneko kontuak berregituratzeko eta “inor atzean ez uztea” ziurtatuko duten mekanismoak ezartzeko aldaketa-akuilua izan al da?
- 
6 GJHei egiten diegun ekarpenaren jarraipena egiteko mekanismoak ezartzera bultzatu al gaitu, argitaratzeko modukoak izan daitezkeen adierazle edo memorien bitartez?
- 
7 Gure interes-taldeekin harreman berriak ezartzeko ateak ireki al dizkigu?
- 
8 Gure erakundeak GJHetan duen eragina biderkatuko duten hitzarmen, aliantza eta lankidetzak berrietarako ateak ireki al dizkigu?

Erakundearen barruan pertsona guztiak prestatzea eta informatzea



Helburu estrategikoak lortzeko, prestakuntza eta informazioa dira ezinbesteko elementuetako bat erakundeetan.

Zentzu horretan, behin erakundeak Garapen Jasangarriko Helburuei dagokienez duen eginkizuna eta datozen urteetarako bere helburuak markatuko dituen ibilbide-orria argi dituenean, langile guztiak trebatzea eta informatzea izango da helburuok lortzeko funtsezko tresna bat; prestakuntzako barne-plan baten, komunikazio-ekintzen, sentsibilizazio-ekintzen eta beste hainbat tresnaren bitartez lortzen da hori.

Erakundeak GJHei egiten dien ekarpena gizarteratzea eta aliantzetan parte hartzea



2030 Agenda aktore anitzeko eta zeharkako tresna denez, eta erakundeetan 2030 Agenda izateak aliantza berriak ezartzeko abiapuntu bat jartzen duenez, ezinbestekoa izango da erakundeak Garapen Jasangarriko Helburuen esparruan duen eginkizuna gizarteratzea, memoriak eta albisteak argitaratuta edo gauzatzen ditugun ekintzak biderkatuko, indartuko eta koherentzia emango dieten sareetan edo aliantzetan parte hartuta.

Jakintza partekatzea eta beste erakunde batzuk bulkatzea



Erakunde batean 2030 Agenda ezartzeko prozesuak Garapen Jasangarriko Helburuek erakunde baten eguneroko jardunean esan nahi dutenaren ikaskuntza dakar berarekin. Azken bidaia da, eta horri buruzko ezagutza handia dago, beste erakunde batzuekin parteka daitekeena, beraien bidea errazteko eta bide hori egin dezaten animatzeko.



BENETAKO KASUA



UNICEF Haurtzarorako Nazio Batuen Funtsak Batzorde Nazionalen bitartez antolatzen du herrialde industrializatuetan duen presentzia, UNICEF Espainiako Batzordea Fundazioa da erakundeak espainiar estatuan duen ordezkariak, eta Euskadiko Batzordea, berriz, EAEn duena. Haur eta nerabe guztien eskubideak eta ongizatea sustatzen ditu UNICEFek. 190 herrialde eta lurraldetan lan egiten du, konpromiso hori ekintza praktikoa bihurtzeko, eta batez ere haur eta nerabe ahul eta baztertuenetara iristeko ahalegina egiten du, gizarte osoaren eta, batez ere, leku guztietako haur eta nerabeen onurarako, era horretan inor atzean ez uzteko.

GJH GIDA eta HAURTZAROA. Zer egin dezake zure enpresak?

UNICEF Comité País Vasco

2012an, Haurren Eskubideak eta Enpresa-printzipioak aurkeztu zituzten, haurren eskubideen ikuspegiaren enpresen erantzukizun sozialean txertatzeko lan-esparru global berria.

Haurren eskubideenganako inpaktuak prebenitzeko eta arintzeko, enpresa guztiek politika eta prozesu egokiak ezartzeak duen garrantzia nabarmentzen dute Printzipioek, Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko Nazio Batuen Printzipio Gidarien ildoan. Hor sartzen dira konpromiso politikoa, inpaktuen ebaluazioa, integrazioa eta ekintza, jarraipena eta jakinarazpena, haurren eskubideen esparruan.

Enpresen erantzukizun sozialari buruzko gida praktikoa sorta bat prestatu zuen UNICEFek, enpresei prozesuaren lau faseetako bakoitzean laguntzera bideratutakoa.

Orain, 2030 Agendak markatutako ibilbide-orriarekin, [GJH eta Haurtzarora. Zer egin dezake zure enpresak?](#) Gida prestatu du. Gida horrek aukera ematen die enpresei Haurren eta GJHen ikuspuntutik egin dezaketinari buruzko zeharkako azterketa sakona egiteko.



BENETAKO KASUA



AUREN auditoretza, lege-aholkularitza, aholkularitza eta corporate zerbitzu profesionalen Espainiako enpresa nagusia da. Bere helburu nagusienetako bat da balioa sortzea eta gizartearen, erakundearen eta pertsonen garapen jasangarria laguntzea.

Altavoz 17

Auren

2017an, "Altavoz 17 ODS" ekimena jarri zuen martxan Auren; horren bitartez, Garapen Jasangarriko Helburuekin lotutako hainbat ekintza egiten du, helburuok duten irismenari buruzko eztabaida sortzeko eta, erakunde publiko eta pribatuekin batera, 2030 Agendaren zabalkundea egiten jarraitzeko. ["Goberna: Altavoz 17"](#) liburua argitaratzea izan zen ekimenaren lehen urratsa; gizartearen sektore ezberdinak ordezkatzeko dituzten eta, Helburuok betetzea lortzeko, aldaketa bultzatzen ari diren 17 adituri egindako elkarrizketak jasotzen ditu liburuak. Pertsona garrantzitsuen hausnarketak eta iritziak ere jasotzen ditu, hala nola UNESCOko Zuzendari Nagusia izandakoa eta Cultura de Paz Fundazioko lehendakaria den Federico Mayor Zaragozarenak; Pedro Alonso Malariaren aurkako Mundu Programaren zuzendaria eta gaixotasun horren aurkako lehenengo txertoaren bultzatzailearenak, eta Carmen Pellicerrenak (Gobernuak eskatutako "Irakasle lanbidearen liburu zuria" liburuaren egileetako bat). International Accounting Bulletin aintzatespena eta Garapen Jasangarriko Espainiako Sarearen (REDS) babesa jaso zituen ekimenak.

Eranskina



Erakundearen
erreferentziazko
Helburuak identifikatzen
laguntzeko taula

Taula honetan, euskal erakundeentzako identifikatutako 84 Helmugak aurkezten dira, eta laukituta eta aurre-hautatuta, **erakunde guztientzako komunak** diren erreferentziako Helmugak identifikatu dira.

Helmugaren Nazio Batuen kodea	Helmugaren irismena euskal erakundeentzako	Nire erakundearentzako erreferentziako Helmuga	Jarduera/ Barne-antolamendua	Eguno ekarpena / Etorkizuneko erronka
1.1	Muturreko pobrezia desagerraraztea			
1.2	Pobrezia egoeran dagoen pertsona kopurua erdira murriztea	X		
1.3	Pobrezia eta zaugarritasun egoeran dauden pertsonentzako babes sozialeko estaldura handia lortzea			
1.4	Pobrezia egoeran dauden pertsonen oinarriko zerbitzuak erabiltzeko eskubide berberak izan ditzaten bermatzea			
1.5	Pobrezia eta zaugarritasun egoeran dauden pertsonen klimarekin lotutako muturreko fenomenoaren aurrean izan dezaketen esposizioa murriztea			
2.1	Pobrezia eta zaugarritasun egoeran dauden pertsonen, batez ere urtebetez azpiko haurtxoek, urte osoan elikadura osasungarria, elikagarria eta nahikoa izan dezaten ziurtatzea			
2.2	Malnutrizio modu guztiak desagerraraztea, obesitateari ere arreta eskainiz	X		
2.3	Elikagaien maila txikiko ekoizleen nekazaritzako ekoizpena bikoiztea, batez ere familia- nekazariena, abeltzainena eta arrantzaleena			
2.4	Nekazaritzaren sektoreak klima-aldaketara egokitzeko duen gaitasuna indartzea			
2.5	Hazien, landatutako landareen eta abeltegiko animalien dibertsitate genetikoari eustea, hazi- eta landare-bankuak ondo kudeatu eta dibertsifikatuta			
3.4	Osasun mentala eta ongizatea sustatzea	X		
3.5	Substantzia mendekotasun-sortzaileen gehiegizko erabilera prebenitzea			
3.6	Erdira murriztea trafiko-istripuengatik hildakoen eta lesioen kopurua	X		
3.9	Airearen, uraren eta lurzorua kutsadurak osasunean duten eragin kaltegarria murriztea			
3.b	Txertoak eta botikak garatzeko eta ikertzeko jarduerak bultzatzea			
4.1	Haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntza amai ditzaten ziurtatzea			

Helmugaren Nazio Batuen kodea	Helmugaren irismena euskal erakundeentzako	Nire erakundearentzako erreferentziako Helmuğa	Jarduera/ Barne-antolamendua	Eguno ekarpena / Etorkizuneko erronka
4.3	Kalitatezko prestakuntza tekniko, lanbide heziketa eta goi-mailakoa –unibertsitatekoa barne– egiteko aukera-berdintasuna ziurtatzea			
4.4	Enplegua eskuratzeko, lan duina izateko eta ekintzailetzarako beharrezko gaitasunak dituzten gazteen eta helduen kopurua nabarmen handitzea			
4.5	Hezkuntzan generoen arteko ezberdintasunak desagerraraztea, eta ezgaitasuna duten pertsonen eta zaurgarritasun egoeran dauden haurrek irakaskuntzarako eta lanbide heziketarako aukera berdinak izan ditzaten ziurtatzea			
4.7	Ikasle guztiak garapen jasagarria sustatzeko beharrezko ezagupen teoriko eta praktikoak euren gaitasuna ditzaten ziurtatzea			
4.a	Ikaskuntza-ingurune seguruak, indarkeriarik gabeak, inklusiboak eta eraginkorrak eraikitzea eta egokitzea, ikaskuntza-ingurunean bizitza osoan zehar kontuan hartuta	X		
5.1	Emakume eta neskatilen aurkako diskriminazio modu guztiak desagerraraztea	X		
5.2	Emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeria modu guztiak desagerraraztea	X		
5.4	Etxean eta familian erantzunkidetasuna sustatzea	X		
5.5	Emakumeen erabateko parte-hartze eraginkorra eta aukera-berdintasuna ziurtatzea	X		
6.3	Uraren kalitatea hobetzea, kutsadura murriztuz			
6.4	Sektore guztietan, ur-baliabideen erabilera eraginkorra areagotzea			
6.6	Urarekin lotutako ekosistemak babestea eta berroneratzea			
7.1	Energia-zerbitzu eskuragarri, fidagarri eta modernoak eskuratzeko aukera bermatzea			
7.2	Energia berriztagarrien proportzioa handitzea			
7.3	Energia-eraginkortasunaren hobekuntza-tasa bikoiztea			
8.2	Produktibitate ekonomikoa hobetzea, dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren bitartez			
8.3	Lanpostu txukunen sorkuntza, ekintzailatza, sormena eta berrikuntza sustatzea	X		
8.4	Baliabideen ekoizpen eta kontsumo eraginkorra hobetzea, eta hazkunde ekonomikoa ingurumenaren degradaziotik bereiztea	X		

Helmugaren Nazio Batuen kodea	Helmugaren irismena euskal erakundeentzako	Nire erakundearentzako erreferentziako Helmuğa	Jarduera/ Barne-antolamendua	Eguno ekarpena / Etorkizuneko erronka
8.5	Pertsona guztientzako enplegu duina eta balio bereko lanagatiko ordainsari-berdintasuna lortzea			
8.6	Enplegurik gabe eta ikasten ari ez diren gazteen proportzioa murriztea			
8.8	Lan-eskubideak babestea, eta lan-ingurune seguru eta arriskurik gabeak sustatzea			
8.9	Lanpostuak sortu eta bertako kultura eta produktuak sustatuko dituen turismo jasangarri bat sustatzea			
9.1	Azpiegitura fidagarri, jasangarri, erresiliente eta kalitatezkoak garatzea			
9.4	Industriak berregituratzea, jasangarriak izan daitezen, baliabideak eraginkortasun handiagoz erabilia eta teknologia garbien erabilera sustatuta			
9.5	Berrikuntzaren eta ikerkuntzaren bitartez, industria-sektoreen gaitasun teknologikoa hobetzea			
10.2	Pertsona guztien gizarteratzea, inklusio ekonomiko eta politikoa bultzatzea eta sustatzea	X		
10.3	Pertsona guztiei aukera-berdintasuna bermatzea	X		
10.4	Berdintasun-maila handiagoa lortzeko politika fiskalak, soldata-politikak eta babes sozialekoak ezartzea			
10.7	Pertsonen migrazio eta mugikortasun antolatua, seguru, erregularra eta arduratsua bermatzea	X		
11.1	Pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egoki, seguru eta eskuragarriak izan ditzaten ziurtatzea			
11.2	Garraiatzeko modu jasangarrien erabilera sustatzea	X		
11.3	Urbanizazio inklusiboa, parte-hartzailea eta jasangarria areagotzea			
11.4	Kultura- eta natura-ondarea babestea eta zaintzea			
11.5	Hondamendiek eragindako heriotza kopurua murriztea			
11.6	Hirien eta herrien ingurumenarekiko inpaktu negatiboa murriztea, arreta berezia eskainiz airearen kalitateari eta hondakinen kudeaketari	X		
11.7	Herritar guztiek, batez ere emakumeek, haurrek, adineko pertsonak eta ezgaitasuna dutenek, berdegune eta espazio publiko seguru, inklusibo eta irisgarrietara iristeko aukera izan dezaten ziurtatzea			

Helmugaren Nazio Batuen kodea	Helmugaren irismena euskal erakundeentzako	Nire erakundearentzako erreferentziako Helmuğa	Jarduera/ Barne-antolamendua	Eguno ekarpena / Etorkizuneko erronka
11.b	Gizarteratzea, baliabideen erabilera eraginkorra, klima-aldaketaren eraginak arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko modua eta hondamendien aurreko erresilientzia sustatzeko politikak eta planak egiten eta ezartzen dituzten hiri eta herrien kopurua handitzea			
12.2	Natura-baliabideak modu jasangarrian kudeatzea eta modu eraginkorrean erabiltzea lortzea	X		
12.3	Elikagaien xahuketa erdira murriztea			
12.4	Atmosferara egiten diren emisioak eta uretara eta lurzorura egiten diren isurketak murriztea			
12.5	Hondakinen sorkuntza nabarmen murriztea, prebentzioaren, murrizpenaren, birziklapenaren eta berrerabiltzearen bitartez			
12.6	Erakundeetan jardunbide jasangarriak erabiltzea, eta jasangarritasunaren inguruko informazioaren berri ematea	X		
12.7	Erosketa publiko jasangarriko jardunbideak ezartzea			
12.8	Herritarrei naturarekin harmonian egoteko bizitza-estiloak sustatzeko informazioa ematea			
12.a	Garapen bidean dauden herrialdeei kontsumo- eta ekoizpen-modalitate jasangarriagoetarantz aurrera egiteko duten gaitasun zientifikoa eta teknologikoa indartzen laguntzea			
12.b	Garapen jasangarriaren gaineko eraginak zaintzeko tresnak egitea eta aplikatzea, lanpostuak sortu eta bertako kultura eta produktuak sustatuko dituen turismo jasangarri bat lortzeko helburuz			
13.1	Herrialde guztietan, klimarekin eta hondamendi naturalekin zerikusia duten arriskueta egokitzeko gaitasuna eta erresilientzia indartzea			
13.2	Klima-aldaketarekin zerikusia duten neurriak hartzea (arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko neurriak)	X		
13.3	Klima-aldaketa arintzeari eta aldaketa horretara egokitzeari, klima-aldaketaren ondorioak murrizteari eta alerta goiztiarrari dagokionez, gizakien eta erakundearen heziketa, sentsibilizazioa eta gaitasuna hobetzea			
14.1	Itsasoaren kutsadura prebenitzea eta murriztea, batez ere lurreko jarduerak sortutakoa	X		
14.2	Itsasoko eta itsasertzeko ekosistemak modu jasangarrian kudeatzea eta babestea, efektu kaltegarri garrantzitsuak saihesteko, eta horiek berreskuratzeko neurriak hartzea, ozeanoen osasuna eta produktibitatea lehengoratzeko helburuz			
14.4	Arrantza-ustiakuntza eraginkortasunez arautzea, eta gehiegizko arrantzarekin, legez kanpoko arrantzarekin, deklaratu eta arautu gabekoarekin eta arrantza-jardunbide suntsitzaileekin amaitzea, eta oinarri zientifikodun kudeaketa-planak aplikatzea, ahalik eta lasterren arrain-populazioak lehengoratzeko helburuz, haien ezaugarri biologikoen arabera ahalik eta etekinik jasangarriena lortzeko gutxienezko mailak lortuz			

Helmugaren Nazio Batuen kodea	Helmugaren irismena euskal erakundeentzako	Nire erakundearentzako erreferentziako Helmuğa	Jarduera/ Barne-antolamendua	Eguno ekarpena / Etorkizuneko erronka
14.a	Ozeanoekin eta itsasoekin lotutako ezagupen zientifikoak eta ikerkuntza areagotzea			
15.1	Lurreko eta barnealdeko ur gezen ekosistemak kontserbatzea, berroneratzea eta modu jasangarrian erabiltzea, batez ere basoak, hezeguneak, mendiak eta eremu elkorrak			
15.3	Lur eta lurzoru kutsatuak berroneratzea			
15.4	Mendi-ekosistemak kontserbatzea, haien dibertsitate biologikoa barne, garapen jasangarrirako funtsezko onurak ematen duten gaitasuna hobetzeko helburuz			
15.5	Natura-habitaten degradazioa murriztea, biodibertsitate-galera geldiaraztea, eta mehatxupearan dauden espezieak babestea eta haien desagertzea saihestea			
15.8	Espezie exotiko inbaditzaileak sar daitezen prebenitzea, eta nabarmen murriztea espezie horiek lurreko eta uretako ekosistemetan dituzten eragin kaltegarriak, eta lehentasuneko espezieak kontrolatzea edo desagerraraztea			
15.9	Ekosistemen eta biodibertsitatearen eta horien zerbitzuen balioak plangintzan txertatzea	X		
16.2	Haurren aurkako tratu txarrak, esplotazioa, salerosketa eta indarkeria eta tortura mota guztiak desagerraraztea			
16.5	Ustelkeria eta eroskeria modu guztiak murriztea	X		
16.6	Kontuen berri emango duten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea, maila guztietan	X		
16.7	Maila guztietan erabaki inklusibo, parte-hartzaile eta ordezkagarriak hartzen direla bermatzea	X		
17.2	%0,7 garapen bidean dauden herrialdeak garatzeko laguntza ofizialera bideratzea	X		
17.9	Garapen bidean dauden herrialdeetan gaitasun eraginkorrak eta zehatzak sortzeko jarduerak egiteko nazioarteko laguntza areagotzea			
17.16	Askotariko interesdunen arteko aliantzak sortzea, ezagupenak mobilizatu eta elkartrukatu, eta gaitasuna, teknologia eta finantza-baliabideak sortuko dituztenak, Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko helburuz	X		
17.17	Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilaren arloan aliantzak eratzea	X		
17.19	Garapen jasangarriaren arloan egindako aurrerapenak neurtzeko aukera emango duten adierazleak prestatzea	X		

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

